


ADINEKOEKIKO EUSKAL ESTRATEGIA / 2026-2029



#EUSKADIBERRIA



ADINEKOEKIKO EUSKAL
ESTRATEGIA / 2026-2029



Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritzak egindako azterlana, Matia Institutu Gerontologikoaren laguntza teknikoarekin.

AURKIBIDEA

SARRERA	— 4
1. ESTRATEGIA EGITEKO METODOLOGIA	— 5
2. ZAHARTZEAREN GAUR EGUNGO TESTUINGURUA	— 9
2.1. Bizi-luzetasunaren joerak	
▪ Joera demografikoak eta osasun arlokoak	
▪ Eraldaketak iraupen luzeko zainketetan	
▪ Gizarte- eta ekonomia-aldaketak	
2.2. Zahartzeari buruzko politikak	
▪ Nazioarteko eremua	
▪ Esperientziak beste herrialde batzuetan	
▪ Estatua	
▪ Euskadi	
3. HELBURUA ETA IKUSPEGIA	— 25
▪ Helburua	
▪ Ikuspegia	
▪ Bizitza betea	
▪ Belaunaldien arteko elkartasuna	
4. PRINTZIPIOAK	— 29
▪ Dimentsio pertsonala	
▪ Dimentsio komunitarioa	
▪ Testuinguruaren dimentsioa	
ESKU-HARTZERAKO ARDATZAK	
A1: Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako	
A2: Zainketen kalitatea eta jasangarritasuna	
A3: Ongizatea, bakardadeei aurre eginda	
A4: Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea	
A5: Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea	
5. TRAKZIO-PROIEKTUAK	— 47
6. EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	— 61

SARRERA

Adinekoekiko Euskal Estrategia 2006-2029 adinekoen, erakunde publikoen, hirugarren sektore sozialaren, adituen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko elkarlanaren emaitza izan da. Eta aurreko strategiaren jarraipen gisa planteatzen da, egindako ebaluazioaren ondorioak kontuan hartuta eta gaur egun eta etorkizun hurbilean adineko pertsonak dituzten behar eta erronka nagusiei buruzko iritziak kontrastatuta.

Estrategia honen helburua da **pertsonek erdigunean jartzea**, Eusko Jaurlaritzaren politika integralaren osagai gisa, **“Euskadi Berria. Ongizatean hazi” lemapean, parte-hartzea, erantzukidetasuna, komunitate inklusiboak, belaunaldien arteko elkartasuna genero-ikuspegitik sustatuz, adinekoen ongizate integrala bizitza betearen ikuspegitik hobetzeko.**

Dokumentu honen lehenengo zatian, estrategia diseinatzeko erabiltako metodologia deskribatzen da, baita abiapuntuko testuingurua ere, Euskadiko bizi-luzetasunaren joeren azterketatik eta nazioarteko eta Euskadiko zahartze-politiken azterketatik abiatuta. Jarraian, strategiaren ikuspegi markoaren atal desberdinak datoz (bizitza betea eta belaunaldien arteko elkartasuna), helburu nagusia (ongizate integrala) eta estrategia gidatzen duten zeharkako printzipioak. Ondoren, datozen urteetarako onartu diren helburu espezifikoak jasotzen dituzten bost Esku-Hartze Ardatzak zerrendatu dira, eta, amaitzeko, praktikan helburuak egituratuko dituzten proiektu eragileak sartu dira.

1.

ESTRATEGIA EGITEKO METODOLOGIA





Adinekoekiko Euskal Estrategia 2026-2029 **metodologia parte-hartzaileari** jarraituz egin da. Metodologia horrek **hainbat eragileren ikuspegiak, ekarpenak, esperientziak eta praktika onak biltzen ditu**, Nazio Batuen Batzorde Ekonomikoak egindako “*Guidelines for Mainstreaming Ageing*” (UNECE, 2021) gidaliburua oinarri hartuta. Gida hori Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoak (UNECE) ga-

ratutako esparru metodologikoa da, estatuei zahartzearen ikuspegia politika publiko guztietan sistematikoki txertatzen laguntzeko. Esparru horrekin, estrategia hau, aurrekoa bezala, **adineko pertsonekin, sektore publikoarekin, hirugarren sektore sozialarekin** eta bizi-tza-luzeraren erronkan inplikaturik dauden **beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko dinamikan** diseinatu da.

HONELA LABURBILTZEN DIRA ESTRATEGIA DISEINATZEKO FASEAK:

1- Estrategia diseinatzeko lantalde bat abian jartzea

Lantalde bat osatu zen **Euskadiko Adinekoen Batzordearen (EAB)** barruan, **Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritzaren** parte-hartzearekin. Lantalde horren helburua zen “**Euskal Estrategia egiten laguntzea, begirada komun, partekatu eta global batekin, adinekoen benetako ezagutzan oinarrituta eta haien ongizatea hobetzea bilatuz**”. Lantalde horrekin lan-saioak egin ziren eta fase guztietan bildutako informazio guztia bateratu zen, gogoeta egiteko, hitz egiteko eta strategiaren diseinuan laguntzeko ekarpenak jasotzeko.

2- Bizi-luzetasunaren joerak eta politikak bildu eta aztertzea

Bizi-luzetasunaren joerak aztertu ziren, baita **nazioarteko eta Euskadiko adinekoentzako planak eta estrategiak** ere. Azterketa horiek balio izan dute estrategia eguneratzeko eta gaur egungo testuinguruan kokatzeko, adinekoen egoerari eta etorkizuneko joerei eta ezartzen ari diren politikari dagokienez. Azterketa horren emaitzaren laburpena 3. epigrafean jaso da.

3- Agenteen mapaketa eta kontsulta

Hainbat agenterekin aztertzeke eta kontrastatzeko egindako lanaren barruan, kontsulta-prozesu bat egin zen, **galdetegi erdi egituratu** gisa, eta posta elektronikoz bidali zitzaizen Euskal Autonomia Erkidegoko arduradun politikoei, agenteei (ikerketa, hirugarren sektore soziala, elkarteak) eta adituei (unibertsitateak, fundazioak). Gainera, **elkarrizketa sakonak** egin ziren hautatutako pertsona batzuekin, zehatzago aztertzeke Euskadiko bizi-luzetasunaren erronka handiak, adinekoen beharrak eta horiei aurre egiteko abian jarri beharreko balizko politikak.

4- Kontrastea lantaldearekin

Testuinguru-osagai horiek guztiak aztertu ondoren, lantaldearekin lan egin zen estrategia hau osatuko zuten printzipioak, **esku hartzeko ardatzak eta trakzio-proiektuak** zehazteko.

Oro har, prozesu metodologiko horri esker —joera eta esparru politikoen azterketan, funtsezko agenteei egindako kontsulta eta lantaldearekin egindako kontraste sistematikoan oinarrituta—, estrategia sendoa, parte-hartzailea eta gaur egungo eta etorkizuneko erronkekin lerrotua eraiki da. Begirada, jakintza eta ebidentzia desberdinen konbinazioak diagnostikoa aberastu eta dokumentuaren barne-koherentzia indartu du, eta ziurtatu da proposatutako esku hartzeko ardatzek lurraldearen benetako beharrei zein aurrera egiteko ikuspegi partekatuari erantzuten dietela.



2

ZAHARTZEAREN
GAUR EGUNGO
TESTUINGURUA



Kapitulu honetan, Euskadiko bizi-luzetasunari lotutako joera nagusiak aztertzen dira, baita lurralde honetako, Europako eta munduko beste politika batzuen ikuspegiak eta jardueraildoak ere. Bi informazio-iturri horiek oinarri sendoa eskaintzen dute gero eta bizitza luzeagoa duen gizartearen erronkak eta aukerak ulertzeko, eta datozen urteetarako erabaki estrategikoak hartzeko eta gaiak lehenesteko orientabideak emateko, pertsona guztien ongizatean eta adinekoen bizitza betearren garapenean laguntzeko.

BIZI-LUZETASUNAREN JOERAK

Euskadiko bizi-luzetasunaren joerak demografia-, gizarte- eta lurralde-aldaketa sakonen testuinguruan kokatzen dira, eta adin handian bizitza-baldintzak birdefinitzen ari dira. Bizi-itxaropena etengabe handitzen eta biztanleria modu iraunkorrean zahartzen ari denez, aukerak eta erronkak planteatzen dira funtsezko esparruetan, hala nola osasunean, iraupen luzeko zainketetan, parte-hartze sozialean eta lurralde-kohesioan. Era berean, Euskadiko bizi-luzetasuna ez da errealitate homogenea. Askotariko zahartze-ibilbideak daude, politikak diseinatzeko kontuan hartu behar diren gizarte-, ekonomia-, genero-, osasun-, eta lurralde-faktoreek baldintzatuta. Ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoan adin handiko biztanleria nola eboluzionatzen ari den eta etorkizuneko bizi-ibilbideak nola ikusten diren erakusten duten datu esanguratsuenetako batzuk jaso dira.

Joera demografikoak

2024an, **Euskadin 65 urteko eta gehiagoko** 560.477 pertsona zeuden, hau da, EAeko biztanleria osoaren % 25,4. Lurralde historikoen arabera, Bizkaiak du adinekoen pisu erlatiborik handiena (% 25,9), eta atzetik oso hurbil daude Gipuzkoa (% 25,2) eta Araba (% 24,1). Hiru lurraldeen arteko aldeak txikiak diren arren, ereduak zahartze orokorra berresten du.

Gaur egun, 20 urtetik beherakoak % 17,7 dira, eta 65 urtekoak edo gehiagokoak, % 25,4. Joera demografikoaren inbertsio hori datozen urteetan biztanleriaren **gehiagizko zahartzea** erakusten duten proiektioetan ere ikus daiteke. Ehun urteko pertsonen kopurua ia hirukoiztu egingo da hamabost urte eskasetan: 2024an 926 izate-tik 2028an 2.740 inguru izatera igaroko da, eta, batez ere, emakumeak izango dira zifra horiek handituko dituztenak. Adineko biztanleriaren hazkunde bereziki handia izango da 2035ean, babyboomeko pertsona guztiek 65 urte baino gehiago izango baitituzte, eta hazkunde horrek 2050era arte iraungo du. Aldaketa horiek ondorio esanguratsuak dituzte, ez bakarrik osasun- eta zainketa-sistemetan, baita adinera egokitutako komunitateak, etxebizitzak eta azpiegitura publikoak finantzatzeko eta diseinatzeko ereduetan ere, bizitzako etapa guztietan ongizatea eta loturak sustatzeko (WHO, 2025).

Ugalkortasunaren beherakada zahartze demografikoaren arrazoi nagusietako bat da, eta Euskadin duela zenbait hamarkadatik gertatzen den joera estrukturala da. 1975ean, ugalkortasun-indize sintetikoa 2,7 seme-alabakoa zen emakume bakoitzeko, eta amatasunaren batez besteko adina, 28,8 urtekoa. Ia mende erdi geroago, emakume bakoitzeko batez besteko seme-alaba kopurua 1,15eraino jaitsi da, eta lehen seme-alaba jaiotzean, batez besteko adina 33,3 urtera igo da (Eustat, 2022-2023). Jaiotza-indizeak berehalako eragina du biztanleria-piramidean edo adin-piramidean; izan ere, piramidearen oinarria estutu egiten da eta horrek eragina du adineko pertsonen ehunekoaren hazkundean.

Zahartze demografikoaren arrazoi-tako bat jaiotza-tasaren bilakaera izateaz gain, bigarren dimentsio erlatibo bat ere badago, piramidearen gailurrari dagokiona: **bizi-itxaropena handitzea**. Bizi-itxaropena belaunaldi bateko pertsonak batez beste zenbat urte biziko diren da.

Eustaten azken datuen arabera (2023), jaiotzako bizi-itxaropenak gora egin du: 1975-1976 aldian, 69,6 urtekoa zen gizonentzat eta 76,9 urtekoa emakumeentzat; 2024an, 81,2 urtekoa da gizonentzat eta 86,6 emakumeentzat. Beraz, azken 40 urteetan 11,6 urte egin du gora gizonen kasuan, eta 9,7 urte emakumeen kasuan.

Bizi-itxaropenak goranzko joera duen arren, horrek ez du esan nahi, nahitaez, irabazitako urte guztiak osasun-egoera onean bizi direnik. Ezintasunik gabeko bizi-itxaropena (EGBI) izeneko adierazleak neurri bakar batean laburbiltzen ditu bizitzaren iraupena eta kalitatea. EGBI biztanleriaren osasunaren adierazle sintetikoa da, eta hilkortasun-datuek emandako informazioa eta ezintasun-datuek emandakoa konbinatzen ditu. Osasun Inkestako datuen arabera (EAEIOI, 2023), gizonak 77,3 urteko EGBI zuten mugarik gabe, eta emakumeek 81,9 urtekoa. Beraz, kalkulatu da gizonak 3,3 urte bizi daitezkeela ezintasun-egoeran, eta emakumeak 4,4 urte. Azken hamar urteetan, **gora egin du ezintasun-egoeran egindako urteen kopuruak**; 2013an, gizonen artean 2,5eko alde zegoen, eta emakumeen artean 3,8koa; beraz, bizi-itxaropenak gora egiteak ez du ekarri osasun onean urteak luzatzea.

Zahartzearen feminizazioa egiturazko ezaugarria da oraindik ere, batez ere adin aurreratua-goetan; emakumeak laurogei urtetik gorako biztanleriaren % 63 dira, eta, beraz, garrantzitsua da adinekoentzako politiken diseinuan genero-ikuspegia kontuan hartzea. Eta emakumeak zahartzearen protagonista nagusiak diren arren, eskura dauden estatistika gehienek ez dute oraindik generoaren arabera bereizitako daturik ematen, eta, hala, emakumeen errealitateak eta behar espezifikoak ikusezin bihurtzen dira. Horrez gain, gizonen bizi-itxaropena etengabe handitzea aurreikusten da. Horren ondorioz, gero eta gizon gehiago egongo dira adin aurreratuetan, eta tradizioz emakumeen alar-guntasunari lotutako egoerak atzeratuko dira.

Horrez gain, oso adineko gizonak ere bakarrik bizitzen aurkituko ditugu.

Bestalde, Euskadiko **landa-inguruneetako** adineko biztanleriaren bilakaerak erakusten du zahartze demografikoa bereziki nabarmena dela; izan ere, landa-udalerri askok 65 urte edo gehiagoko pertsonen batez bestekoa gainditzen dute argi eta garbi, eta, kasu askotan, biztanle guztien % 25etik gora daude —proporzio hori ez dator bat hiriguneetan ikusitako belaunaldi-banaketarekin—, eta agerian gera-



tzen da adineko pertsonak biltzen direla biztanle gazte gutxiago eta jaiotza-tasa txikiak dituzten lurraldeetan. Testuinguru horretan, adinekoek funtsezko zeregina betetzen dute landa-ingurunearen euste sozial eta komunitarioan, babes-sareak, lurralde-identitatea eta eguneroko jarduera mantentzen baitituzte. Aldi berean, erronka handiagoak dituzte osasun-, gizarte- eta iraupen luzeko zaintza-zerbitzuak eskuratzeko, bai eta mugikortasun- eta konektibitate-mugei aurre egiteko ere. Horrek indartu egiten du lurralde-ekitatea bermatuko duten eta ongizate- eta autonomia-baldintzetan zahartzen lagunduko duten politika espezifikoaren beharra.

Gizarte- eta ekonomia-aldaketak

Baina, egoera demografikoaz harago, Euskadiko adineko biztanleriaren zenbait ezaugarri na-



barmendu behar dira, politikak, programak eta zerbitzuak garatzeko kontuan hartu behar direnak. Alde batetik, **hezkuntza-maila altua** handitu egin da, eta aurreko belaunaldietakoaren oso bestelakoa da. Gaur egun, % 4 baino ez dago mailarik baxuenetan (analfabetismoa edo lehen mailako ikasketak osatu gabe), eta % 23k goi-mailako ikasketak ditu (2023). Biztanleen hezkuntza-maila handitzeak eragin zuzena du beharretan, eta, batez ere, behar horiei erantzuteko moduan. Hezkuntza-maila handiagoko pertsonen autonomia, partaidetza eta kalitate eta gardentasun handiagoko zerbitzu pertsonalizatuak eskatzen dituzte.

Egoera ekonomikoari dagokionez, Euskadik Estatuko kotizaziopeko batez besteko pensioen rankingaren buruan egoten jarraitzen du 2025ean (1.615,62 euro/hilean). Benetako ongizaterik eza, gizarte jakin batean espero diren gutxieneko ongizate- eta erosotasun-mailei eusteko jotzen diren ohiko gastuei aurre egiteko diru-sarrerara nahikorik ez izateari erreferentzia egiten dion adierazlea, %6,9an zegoen 2018an, eta %4,1era jaitsi zen 2022an. Horrek iradokitzen du adineko gehienek euskal gizartearen bizimoduan, ohituretan eta jardueretan parte hartzeko aukera ematen duten bizi-baldintzak dituztela, nahiz eta gutxienekoak izan. Ildo horretan, baldintza ekonomikoak hobetu egin direla ikusten da etxeko ekonomiarekiko gogobetetze-adierazlean, 2014ko 6,35 puntutik 2024ko 7,22 puntura igo baita batez beste (0tik 10erako eskala).

Bakarrrik bizitzea beste joera bat da adinekoen belaunaldietan. Euskadin, bakarrrik bizi diren pertsonen ia erdiak 65 urtetik gorakoak dira (% 45,1). Talde horren barruan, genero-desberdintasuna oso handia da: emakumeen % 57,2 bakarrrik bizi da adin horretan (94.490 emakume), eta gizonen % 29,1 (36.559). Adinekoei dagokionez, % 23,4 bakarrrik bizi dira. Euskadin bakarrrik bizi diren adinekoen proportzio gero

eta handiagoari buruzko datu horiek (batez ere emakumeak) zahartzaroan etxebizitza eta elkarbizitza ulertzeko modu berriak ere aurreratzen dituzte. Bakardadean bizitzeak ez dakar beti bakardadea sentitzea edo isolamendu-egoeran egotea, baina erronkak planteatzen ditu irisgarritasunari, segurtasunari, eguneroko laguntzari eta gizarte-loturei dagokienez.

EAEko Osasun Inkestaren arabera (2023), 65 eta 74 urte bitarteko pertsonen % 2,8 bakarrrik sentitzen dira (beti edo askotan), eta 75 urte edo gehiagokoen % 7,4; zifra hori 15 eta 24 urte bitarteko gazteen multzoaren oso antzekoa da (% 7,1). Bakardade-sentimenduak nagusitasun handiagoa du gazteen eta adinekoen artean, eta agerian uzten du bizi-zikloaren zeharkako fenomeno dela, politika publiko integralak eskatzen dituen, prebentzioaren, bizi-zikloaren eta belaunaldien arteko ikuspegiarekin, bizitzako etapa guztietan gizarte-loturak eta laguntza-sareak sendotzeko gai direnak.

Testuinguru horretan, **etxebizitza** ongizaterako eta autonomia pertsonalerako osagai nagusi bihurtzen da. Adineko pertsonak bizitzeko eta etorkizunean bizi nahi izateko modua aldatzen ari da, eta **egoitza-modu malguagoak, parte-hartzai-leagoak eta egokituagoak** agertzea bultzatzen ari da. Agenda Nagusiaren esparruan (2024) egin dako ikerketa batzuek 70 urtetik gorako pertsonen non zahartu nahiko luketen erakusten dute. Datuak adineko biztanleen adierazgarri ez badira ere, ondorio batzuk nabarmentzen dira, hala nola norberaren etxea aukeratzea, beharrezkoak diren egokitzapenekin, eta pertsonari independentea izatea ahalbidetuko dion tutoretzapeko apartamentua. Eta ondo zahartzeko lekuari buruz gehien baloratzen diren alderdien artean, nahia- go dira ahalik eta bizimodu autonomoena egiteko aukera ematen duten lekuak, hurbileko zerbitzuak dituztenak, erosoak eta arkitektura-oztoporik gabekoak, eta beste pertsona batzuekin harremanak izateko aukera ematen dutenak.

Adinekoen profil berrien ugaritzean kontuan hartzeko beste gai bat **sexu-orientazioa** da. Euskadiko daturik ez dagoen arren, Estatuko datuek erakusten dute 65-74 urtekoen % 4,1 eta 75 urtetik gorakoen % 4,6 LGTBQ+ direla. Baina nabarmentzekoa da, era berean, galdera horri erantzuten ez dioten pertsonen kopuruak nabarmen egiten duela gora adinarekin batera, 75 urtetik gorako pertsonen % 10,8raino iristen baita, eta horrek zailtasunak erakutsi ditzake sexu-orientazioa aitortzeko orduan, baina baita adin aurreratu- etan arauz kanpoko beste kolektibo batzuetako kide izan daitezkeen pertsonak ikusezin bihurtu ere. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzako Aniztasun, Bizikidetzeta eta Belaunaldiarteko Elkartasunaren Zuzendaritza biztanleria osoaren Sexu eta Genero Aniztasunaren Euskal Estrategia lantzen hasi da, eta, bertan, adinekoen sexualitatea nolakoa den aztertuko da. Hori mugarri bat izango da datuak izateko eta ildo horretako politikak ezarri ahal izateko.

Familia-harremani dagokienez, Euskadin harreman horien egonkortasuna nabarmentzen da. Gaur egun, 60 eta gehiagoko pertsonen % 87k adierazi du familia duela eta harekin harremana duela. 1989an jaso ziren lehen datuetatik antzekoa da hori. Hala ere, familiarik ez dutela adierazi duten pertsonen kopuruak gora egin du pixka bat (1999an % 2,8koa zen eta 2024an % 7,0koa) eta, familia izan arren, harremanik ez duten pertsonen kopuruak behera egin du (% 11,8tik % 6,1era). Beraz, badirudi familia-sare sendoa dagoela joera gisa, eta familiarik ez duten pertsonen kopuruak ere gora egin duela pixka bat. Alderdi hori kontuan hartu behar da zerbitzuen sistema marrazteko oinarri gisa familiarren laguntza izan ohi duten politikak diseinatzerakoan.

Egoera zibila ezagutzeak mendekotasuna areagotuz gero izan daitezkeen laguntza-iturriei buruzko informazioa ematen du. Emaitzek erakusten dutenez, 60 urtetik gorako pertsonen

% 62,2 bikote-bizitza partekatzen ari da (ezkontuta edo erregistratutako batasuna), alargundu zirenak datoz ondoren (% 20,2), ezkongabeak % 11,7 dira, eta dibortziatuak edo bananduak % 5,9. Adin horietan, bikotekidearekin bizitzea da ohikoena. Baina interesgarria da ikustea adin aurreratu- etan, 80 urtetik gorakoetan, alarguntasuna dela nagusi (% 47,1), are gehiago emakumeen kasuan, eta ondoren bikotea (% 41,5), ezkongabea (% 10,15) eta dibortzioa (% 1,3) daudela. Datu horiek argi uzten dute belaunaldi berrietan aldaketak ikusten direla dibortziatu- etan eta beharbada inoiz ezkondu ez diren ezkongabeen gorakadan; horrek etorkizunean egoera-aniztasun handiagoa ekarriko du.

Kontuan hartzeko alderdi bat da adineko emakumeen aurkako genero-indarkeria historikoki oso gutxi ezagutzen den fenomeno dela, eta gero eta zaharragoa den gizartean duela gutxitik hartzen ari dela garrantzia. 65 urtetik gorako emakumeak ere genero-indarkeriaren biktima dira. Emakundeko datuen arabera (Genero indarkeria eta adineko emakumeak Euskal Autonomia Erkidegoan: zaurgarritasun ezkutua agerian uzten, 2023), 65 urteko eta gehiagoko emakume guztietatik, gutxi gorabehera lau emakumetik batek (% 23,4) genero-indarkeria jasan du bizitzan zehar, eta gaur egun % 5,7k jasaten du. Kopuru hori % 10,1era igotzen da bikotekidea duten adineko emakumeen kasuan.

Etxean sortzen diren loturez gain, bertan bizi ez diren pertsonetik harremanek (senideak, lagunak edo iraganeko lan-harremanak) funtsezko zeregina betetzen jarraitzen dute adinekoen eguneroko bizitzan. Sare horiek funtsezko iturria dira laguntza emozionalerako, bizitzaren zentzurako eta zaintza informalerako, eta faktore babesle garrantzitsua dira isolamendu- eta bakardade-egoeren aurrean. Datuetan ikus daitezkeenez, **sare zabalaren neurria handitu egin da** –elkarrekin bizi den familia osatzen duten pertsonen, komunikazio erregularra duten fa-



miliakoen eta familia-sare zabalaren batura-; 2012an % 19,68 izatetik 2022an % 23,39 izatera igaro da. Adinekoen sareko iguera hori biztanleria osoarena baino nabarmen handiagoa da, denbora-tarte berean 1,49 pertsona gehiago izan baitziren. Beraz, laguntza-sareak familia-nukleotik kanpoko pertsonekin dibertsifikatzen ari direla ikusten da.

Ildo horretatik, datuek erakusten dute adinekoek hautemandako **gizarte-kohesioan** joera positiboa dagoela, 2007an % 6,38 izatetik 2022an % 6,83 izatera igaro baita, eta agerian uzten du etengabeko hobekuntza dagoela loturen kalitatean, elkarrekiko konfiantzan eta kide izatearen zentzuan. Aurrerapen horrek, harremanen ongizate handiagoa ez ezik, **komunitatearen ikuspegia ere indartzen du**, pertsonen beren ingurunean aktiboki parte hartzeko, laguntza eskuragarriak aitortzeko eta dinamika kolektiboetan parte hartzeko duten gaitasun moduan ulertuta. Gizarte-kohesioa handitzeak, beraz, adierazten du adinekoek komunitate hurbilagoa, solidarioagoa eta konektatuagoa hautematen dutela, eta hori funtsezko osagaia dela haien ongizate integralerako eta elkarrekin bizitzeari eusten dioten inguruneak eraikitzeko.

Hala ere, azpimarratu behar da Euskal Autonomia Erkidegoan ez dagoela informaziorik familia-inguruneaz haragoko **belaunaldien arteko harremanak** zein neurritan eman daitezkeen jakiteko. Bakar-bakarrik dakigu aitona-amonek eginkizun garrantzitsua izaten jarraitzen dutela seme-alabei laguntzeko, bilobak zaintzen baitituzte, eta lanik intentsiboenak 80 urte bete aurretik egiten direla, eta murriztu egiten direla adin aurreratuetan (BBI, 2020). Belaunaldien arteko harremanek eta elkertasunak eztabaida sozial eta politikoan gero eta garrantzi handiagoa duten arren, datu sistematikoen gabezia nabarmena dago, bai Euskadin, bai nazioartean. Horregatik, Euskadi ZUBIAK estrategia garatzen ari da, datuen gabezia horri erantzuteko.

Lan-merkatuko jarduerari dagokionez, nabarmentzekoa da Euskadin gero eta gehiago direla **adin aurreratuetan lanean** jarraitzen duten pertsonak. 60 eta 64 urte bitarteko taldean, lanean jarraitzen zutenak % 35,1 ziren 2014an, eta 2022an, berriz, % 45,6. Gaur egun, tarte horretan dauden ia erdiek lan-merkatuan jarraitzen dute. Aldaketarik deigarriena 65-69 urte bitarteko taldean gertatzen da, ia bikoiztu egin baita: 2014an % 3,0 ziren, eta 2022an % 6,6. Gero eta ohikoagoa da erretiroa hartzeko legezko adinetik harago lan-bizitza luzatzen duten pertsonak ikustea. Aipagarriak dira baita ere belaunaldien arteko erreleboak euskal ekonomiaren sektore guztietan izan duen eragina eta lan berean lau belaunaldi arte irautea.

Euskadin 60 urte eta gehiagoko pertsonen **denboraren erabileran izandako aldaketek** ere joera interesgarriak erakusten dituzte. Esate baterako, gizarte-bizitzako jardueretan, dedikazioaren batez besteko denbora murriztu bada ere (2018an 1 h 43 min izatetik 2023an 1 h 20 min izatera), nabarmen igo da adin horretako pertsonen proportzioa eguneroko bizitzan horrelako jarduerak egiten dituztenen artean, % 36,9tik % 53,7ra igaro baita aldi berean. Horrek esan nahi du adineko pertsona gehiagok hartzen dutela parte gizarte-jardueretan, nahiz eta eguneroko iraupena txikiagoa izan. Nabarmentzekoa da emakumeek eguneroko jardueran duten zeregina, baina ez elkarte-egituretako zuzendaritza-postuetan.

Aisialdiari dagokionez, 60 urteko eta gehiagoko pertsonen % 54,8k egunean sei ordu baino gehiago ematen dituzte aisialdian. Aisialdiko jarduera ohikoenen artean bazkaltzera edo afaltzera irteera nabarmen dira. Baita kopak hartzea, potoan ibiltzea, etab. ere; 1989an 60 urtetik gorako biztanleen % 20,0k astero praktikatzen zuen, eta 2024an, % 46,1ek. Kirol-jarduerak ere nabarmen igo dira: 1989an % 2,7 izatetik 2024an % 12,5 izatera igaro dira. Lagunekin edo auzokoekin ibil-

tzera irteteak hazkunde egonkorragoa izan du, % 28,8tik % 34,9ra; erlijio-kultuetara joateak, berriz, nabarmen egin du behera: 1989an % 45,3 ziren, eta gaur egun jarduera horiek egiten dituzten pertsonen kopurua % 6,3ra iritsi da. Hala ere, jarraian ikusiko dugu nola handitu den erlijio-erakundeetako borondatezko jarduerak egiten dituzten pertsonen kopurua.

Datu horiek agerian uzten dute aldaketa nabarmena gertatu dela, eta egiaztatzen dute gaur egun zahartzen ari den biztanleriaren bizi-ohiturek alde handiak dituztela aisialdian, aurreko belaunaldiekin alderatuta. Aisialdiaz gehiago gozatzen duten adinekoen belaunaldien aurrean gaude, eta joera dute asteburuetako paseoak, kirol-jarduerak eta otorduak egiteko. Aisiak gora egin du, eta aisialdiarekiko gogobetetzea ere hobetu egin da. 2014an 7,38 puntukoa zen batez beste (0tik 10erako eskala), eta 7,72ra igo da 2024an.

Baina aisialdiaz eta aisialdiko jardueraz gozatzaren duten pertsonen kopuruak gora egiteaz gain, boluntario-jardueretatik **gizarte-ekarpeneko jardueretan** parte hartzen duten adineko pertsonen kopuruak gora egiteko joera dagoela ikusten da. 2004tik 2024ra bitartean, aldaketa handia gertatu da adinekoek Euskadiko elkarte eta erakundeetan duten borondatezko parte-hartzean. Termino erlatiboetan, azpimarratzekoa da erlijio-kontzesioko jardueretako parte-hartze aktiboa: adinekoak % 35,7 ziren 2004an, eta % 42,7 2024an; auzo-elkarteak % 21,2tik % 42,6ra igaro dira 2024an; arte-, folklore-, eta jolas-elkarteak % 22,9tik % 31,2ra igo dira aldi berean; giza-eskubideen elkarteetan adinekoen presentzia % 14,9tik % 26ra igo da; ingurumen-elkarteetan, % 11tik % 34ra; eta gazte-elkarteetan, adinekoak % 1,6 besterik ez ziren 2009an, eta % 13 2024an. Gizarte-laguntzako erakundeetan pertsonen % 35-40k parte hartzen du adi osoan, eta kirol-elkarteetan, % 11-15 inguruk. Oro har, datuek erakusten dute adineko

pertsonen gizarte-konpromisoan goranzko joera dagoela, hainbat erakunderi egiten dieten ekarpenetik abiatuta. Erakunde horiek esparru tradizionaletakoak dira, hala nola erlijio-, auzo- eta jolas-esparrukoak, baina hazten ari diren



espazioetan ere gora egiten ari dira, hala nola ingurumen-esparruan edo giza-eskubideen esparruan.

Era berean, **jarduera fisiko** osasungarria egiten duten adinekoen ehuneko oso handia da; 65-74 urte bitarteko artean % 83,5era iristen da, eta 75 urtetik gorako % 63,0ra (2023). Zifra horiek 10 puntu igo dira 2013ko datuekin alderatuz gero. Adineko pertsonen ariketa fisiko gehiago egiteak modu erabakigarrian laguntzen du osasun fisiko eta mentala hobetzen, autonomia pertsonalari eusten eta hauskortasun- eta mendekotasun-egoerak atzeratzen, eta epe ertain eta luzera onura sozial eta ekonomikoak eragiten ditu.

Horrez gain, garrantzitsua da **kontsumoari** buruzko joerak nolakoak diren ikustea. 2022an, 65 urte edo gehiagoko pertsonak buru zitutzen etxeetako gastua Euskadin 18.385 eurokoa zen. Horrek argi eta garbi gaintitzen zuen 45-64 urteko taldea, 14.440 euroko gastua baitzeukan.



Gastu horrek gora egin du 2020tik; urte horretan jaitsiera txiki bat izan zuen aurreko urteekin alderatuta. Urte horretatik aurrera, adineko pertsonen gastuen gorakada nabarmena izan da, eta 45 eta 64 urte bitarteko pertsonena baino gehiago igo da. Ildo horretatik, aldaketa garrantzitsua antzematen da; belaunaldi nagusiak merkatua dinamizatzen eta eusten duten eragileak dira, gastu-eredu gero eta handiagoak eta iraunkorrak egiten baitituzte.

Azkenik, **teknologiaren erabilera** azpimarratzen da, azken urteetan nabarmen hazi baita. 2005ean, 65 urteko eta gehiagoko pertsonen % 12,7k soilik adierazi zuten Internet erabiltzen zutela, baina hogeitaz geroago, 2025ean, % 66,5ek erabiltzen dute. 65 urtetik gorako taldeak izan du bilakaerarik handiena. Internet erabiltzen duten adineko guztien artean, % 95ek, gehienek, WhatsApp bezalako zerbitzuak erabiltzen dituzte komunikatzeko, eta % 85,8k Facebook edo YouTube bezalako sare sozialak. Era berean, % 63,8k Internet entretenimendurako erabiltzen du, hala nola filmak ikusteko, eta % 42k osasun-gaietarako, esaterako informazioa bilatzeko edo medikuarekin hitzordua hartzeko (% 20). Azken urteetan, Euskadiko adineko biztanleek gero eta gehiago erabiltzen dituzte Internet eta teknologia digitalak, bai zerbitzuetarako sarbidea izan behar dutelako bai gaitasun digitalak sendotu dituztelako.

Ikusitako joerek erakusten dute Euskadiko zahartzearekin batera eraldaketa sakona gertatzen dela gizartean, ekonomian eta kulturaren; horrek politika publikoak birpentsatzera behartzen du. Hezkuntza-maila hobetzeak, egonkortasun ekonomikoak eta digitalizazio gero eta handiagoak zerbitzuen autonomiari, parte-hartzeari eta kalitateari buruzko itzaropen handiagoak bultzatzen dituzte. Kide bakarreko familiek gora egin dute eta profilak dibertsifikatu egin dira, baina familia-sare indartsuak mantentzen dira, txikiagoak izan arren. Horrekin batera, gizarte-lotura

zabalak eta komunitatean parte hartzeko askotariko moduak daude. Aldi berean, lan-bizitza luzatzean, boluntariorik gora egitean, gastua handitzean eta teknologiaren erabilera hedatzean adineko pertsonak eragile aktibo bihurtzen dira eta komunitatean ekarpenak egiten dituzte.

Eraldaketak iraupen luzeko zainketetan

Bestalde, **iraupen luzeko zainketen** egoera ere eraldatzen ari da. Gizarte Beharren Inkestaren arabera (2022), 65-74 urte bitarteko pertsonen % 6,6 eta 75 urtetik gorako % 28,9 **mendekotasun bereziko egoeran** daude. Mendekotasun bereziak hirugarren pertsonen mendekotasun puntual edo jarraituko inguruabarrak biltzen ditu, gutxienez eguneroko bizitzako jarduerak egiteko. Zifra horiek gutxi gorabehera egonkor mantendu dira urteetan zehar.

Oro har, mendekotasun osoa edo larria duten pertsonen **erabilitako zerbitzuak edo laguntzak** gehienbat pribatuak edo partikularrik dira (% 31,8), eta, ondoren, familia-laguntza eskusibo dator (% 16,1), publiko/itundua (% 13,0) eta mistoa (% 6,9). % 30,7k diote ez dutela inolako laguntzarik jasotzen. Bilakaerak erakusten du laguntza partikularrek gora egin dutela (% 17,9 2006an) eta behera egin dutela publiko/itunduek (% 23,9 2006an) eta familiakoek (% 20,2 2006an), azken horiek neurri txikiagoan bada ere.

Mendekotasun-egoeran dauden pertsonen **eskakuntako laguntzak** gehienbat ekonomikoak dira (kasuen % 50,0), eta are gehiago mendekotasuna osoa edo larria denean (% 61,3). Ondoren, arreta edo zaintza pertsonalerako eskaerak (% 48,7 mendekotasun osoa edo larria duten biztanleen artean) eta laguntza eta/edo gainbegiratze-laguntzaren eskaerak (% 34,9 mendekotasun osoa edo larriaren kasuan) datoz. Beste zerbitzu mota batzuk, hala nola eguneko zentroak edo lanerako ikastegiak (% 7,6) edo egoitza-zerbitzu espezializatuak (% 5,4) askoz gutxiago eskatzen dira. Zerbitzu-mota horien eskaerak beherakada nabarmena izan du; mendekotasun osoa edo larria zuten biztanleen artean % 13-16 zen 2006an, eta % 7-5era jaitsi da 2022an.

Datuek erakusten dute zainketak kanpora ateratzeko joera dagoela gero eta gehiago, kontra-

tazio pribatuak eta zerbitzu profesionalen eskaerak gora egin baitu eta laguntza publiko eta familiako garrantziak behera egin baitu. Era berean, ikusten da laguntza ekonomikoak sendotu egin direla eskaera nagusi gisa, eta egoitza-zerbitzuen eta zerbitzu espezializatuen erabilera eta eskaera nabarmen murriztu direla. Horrez gain, barne-zaintzailerik ez duten etxeak gero eta ohikoagoak dira, eta horrek indartu egiten du etxeko eta hurbileko zerbitzuen beharra.

Bestalde, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren estalduraren** datuek erakusten dute 2014an ELZren irismena 6,9 zela mila biztanleko, eta 2023an 7,6ra iritsi dela. Laguntza ekonomikoek, berriz, 11,99ko estaldura zuten 1000 biztanleko 2019an, eta gaur egun 21,24ra iristen dira. Teleslaguntza-zerbitzuak handitu du estaldura gehien: 2019an 1000 biztanleko 25,3 izatetik 2023an 35,76 izatera izatera igaro zen. Adinekoentzako egoitza-zerbitzuen estaldurak bilakaera izan du: 2018an 10.000 biztanleko 2,02 izatetik 2023an 1,93 izatera igaro da. Eta eguneko zentroen estaldura 2019an 10.000 biztanleko 2,33 izatetik 2023an 2,26 izatera igaro da. Datu horiek erakusten dute gora egin dutela etxean mantentzen laguntzen duten zerbitzuek, hala nola ELZk, laguntza ekonomikoek eta teleslaguntzak, eta apur bat behera egin dutela egoitza-zentroek eta eguneko zentroek. Kontuan izan behar da azken urteetan adin arreratuetakoko biztanleen kopuruak gora egiteak presio handia eragiten duela zerbitzuen estaldura-ratioak eta zahartzearen abiadura parekatzeko. Hala ere, adinekoentzako gizarte-zerbitzuen gastuak gora egin du Euskadin, 771.622 mila eurotik 2020an 975.946 mila eurora 2023an. Horrek esan nahi du 2020an biztanleko batez beste 347,5 euro erabiltzetik 2023an biztanleko 440,3 euro erabiltzera igaro dela. Guztira, gizarte-zerbitzuen sistemaren gastu osoa 2020an 2.865.839 eurokoa izatetik 3.816.985 eurokoa izatera igaro da 2023an.

Nabarmenezko beste datu batzuk **persona zaintzaileen** zifrak dira. Kontabilizatuta dago



Euskadiko biztanleria osoaren % 3,9k zaintza-lanak egiten dituela. Zainketetan, genero-desberdintasunari eusten zaio: 2022an, emakumeak zaintzaileen % 56,5 ziren, eta gizonak % 43,5. Arrakala oraindik ere handia bada ere, jaitsiera txiki bat ikusten da 2018. urtearekiko, eta horrek banaketa apur bat orekatuagoa izan daitekeela esan nahi du, nahiz eta oraindik ez den joera argirik ikusten. Adinaren arabera, zainketak gehienbat 55-74 urteko tartean egiten dira; tarte horretan daude pertsona zaintzaileen erdia baino gehiago (% 54,7 2022an). 65 urteko edo hortik gorako taldeak % 35,9 hartzen du; horrek esan nahi du 26.500 adineko zaintzaile baino gehiago daudela. Bloke horren barruan, % 21,5 65-74 urteko tartekoak dira (15.897 pertsona), eta % 14,4 75 urtekoak eta hortik gorakoak (10.646 pertsona). Beraz, nabarmendu egin behar da mende-kotasun-egoeran dauden beste pertsona batzuk zaintzen dituzten adineko pertsonen kopuru handia; familiei laguntzen diete, seme-alaben eta biloben zaintzatik harago.

Ildo horretatik, datuek erakusten dute adinekoek emandako laguntza jasotakoa baino handiagoa dela, eta hori ez dator bat adineko biztanleei buruz dauden estereotipo negatiboekin. Kapital Sozialaren Inkestako (2022) datuen arabera, 65 urteko eta hortik gorako pertsonen jasotako laguntza batez beste 1,20koa da, eta emandakoa 1,69koa (0-10 eskala). Hemen mota guztietako laguntzak sartzen dira, ekonomikoak, emozionalak eta zainketakoak. Azken finean, datu horiek erakusten dute adineko pertsonen ez dutela laguntza bakarrik jasotzen; funtsezko zutabea dira komunitatean laguntzeko eta zaintzeko. Horrela, estereotipoak desmuntatu eta gizarte-bizitzan duten eginkizun aktiboa, ekarpena eta funtsezko eginkizuna agerian geratzen dira.

Bestalde, **osasanari eta zaintzari lotutako enpleguen** gorakada mundu osoko fenomeno da. Health at a Glance 2023 txosteneko datuen arabera, esparru horretako enpleguak % 24

egin zuen gora 2011 eta 2021 bitartean, enplegu osoaren batez besteko hazkundera (+% 10) baino gehiago, eta beste sektore batzuen gaintik, hala nola zerbitzu orokorrak (+% 13), industria (+% 6) eta nekazaritza (-%7). Hazkunde iraunkor



horrek agerian uzten du lan-merkatuaren eraldaketa estrukturala: zainketari lotutako enpleguak (forma guztiak barne hartuta) indarra hartzen du beste sektore tradizional batzuen aldean.

Euskadin ere ikusten da zainketa-sistemaren eraldaketa sakona; izan ere, gizarte-zerbitzuetan enplegua etengabe hazten ari da, eta horrek agerian uzten du eskaera handiagoa dela, profil profesionalak dibertsifikatzen ari direla eta sektorea enplegu-eremu egonkor eta hedakor moduan sendotzen ari dela. Datuek erakusten dute laguntza-zentro guztietan langileen kopuruak gora egin duela 1994tik 2021era. Adibidez, egoitzetan lan egiten duen langileen kopurua hirukoiztu baino gehiago egin da (4.854 langiletik 15.000ra baino gehiagora), eta eguneko-zentroetan laukoiztu egin da (542tik 2.200era baino gehiagora). Aldaketa hori langileen gorakadatik harago doa, eta lantaldeetan lan egiteko modu berriak eta gaitasun berriak sartzen ditu, arreta eta laguntza integratuago batera bideratuta.

Oro har, Euskadiko bizi-luzetasunaren joerek erakusten dute adin aurreratuetan bizitza-ibilbi-

de gero eta anizkunagoekin bizi diren biztanleen zahartze progresiboa, baita eraldaketa esanguratsuak ere adineko pertsonen osasunaren, bizimoduaren, iraupen luzeko zainketen, aisiaren eta gizarte-ekarpenen esparruetan. Agerian geratzen da komunitatean duten eginkizun aktiboa gehiago aitortzen dela, autonomiaren balioa handitzen ari dela, eta ingurune digitaletara eta gizartean parte hartzeko modu berrietara apurka-apurka egokitzen ari direla. Horri gehitu behar zaio **ongizate subjektiboaren** bilakaera positiboa, bizitzarekiko gogobetetze orokorraren hobekuntzan islatzen dena; 2014an batez beste 6,92 izatetik 2024an 7,30 izatera igaro da (0-10 eskala). Horrek bizi-kalitatean aurrerapen nabarmenak egon direla erakusten du, zainketen iraunkortasunari, bakarrik bizitzeari edo oraindik dagoen arrakala digitalari lotutako erronkak ahaztu gabe.

ZAHARTZEARI BURUZKO POLITIKAK

Zahartzeari buruzko politikak aurrera egin dute azken bost hamarkadetan nazioartean eta Euskadin. Politika horien garapenak interes komuneko hainbat ikuspegi eta puntu planteatzen ditu, bizitzen ari garen aldaketa demografikoaren prozesuaren arabera eta adinekoen bizi-luzetasunaren erronkei eta beharrezan

erantzunez. Atal honen helburua da nazioartean eta Euskadin dauden **plan, estrategia eta ekimen garrantzitsuenak aurkeztea**, zahartze-politikak norantz doazen jakiteko eta horien inguruan gogoeta egiteko, eta estrategia honekin lerrokatzeko.

Nazioarteko eremua

Nazioartean zahartzeari heltzeko moduak bilakaera izan du: **Vienako Nazioarteko Ekin-tza Planak** (Nazio Batuak, 1982) adinekoen eskubideak eta parte-hartze aktiboa bermatzeko oinarriak ezarri zituen. **Madridgo Planak (Madrid International Plan of Action on Ageing - MIPAA, 2022)** zahartze-politiketan garapenaren eta giza-eskubideen ikuspegia sendotu zuen. Esparru horiek **2030erako Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH)** artikulatzen dira (Nazio Batuak, 2015), eta horien artean nabarmentzen da gizarte inklusiboak eta ekitati-boak sustatzea adin guztietarako.

Testuinguru horretan, NBek **lantalde bat** osatu du 2025ean **Adinekoen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzio** baterantz aurrera egiteko, eskualdeko tresnak osatuz, hala nola **Adinekoen Giza Eskubideen Babeserako Konbentzio Interamerikarra** (2015). Europan, **Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak** (2000), 25. artikuluan, aitortzen du adinekoek duintasunez eta modu independentean bizitzeko eta gizarte- eta kultura-bizitzan bete-betean parte hartzeko duten eskubidea, zahartze-politiketan eskubideen ikuspegia indartuz. Aldi berean, OMEk **Zahartze Osasungarriaren Hamarkada** (2021-2030) bultzatu du, zahartzaroan autonomia eta ongizatea bermatzeko ingurune, osasun-sistema eta iraupen luzeko zainketak eraldatu nahi dituena. 2025ean, OMEk **“From loneliness to social connection”** txostena (WHO, 2025) kaleratu du. Txosten horretan, gizarte-konexioaren sustapena pertsonen osasunaren osagai moduan azpimarratzen da.



Europar, **Zahartzeari buruzko Madrilgo Nazioarteko Ekintza Plana (MIPAA)** onartu ondoren, Nazio Batuen Europarako Ekonomia Batzordeak **MIPAA/RIS** eskualde-estrategia garatu zuen. **MIPAA/RIS+20** berrikuspenak zahartze-politiken aurrerapenak nabarmentzen ditu, baita adinekoen eskubideei eta beharri-zanei buruzko kontzientzia gero eta handiagoa eta aldaketa demografikoak sektore guztietan izango duen inpaktua aurreratzearen garrantzia



ere. Horrez gain, txostenak azpimarratzen du zerbitzuetarako sarbidean lurralde- eta gizarte-ekitatea bermatu behar direla, eta gizarte-segurantzako, osasuneko eta zainketako sistemak indartu behar direla 80 urtetik gorako biztanleria gora egiten ari delako. Europar, **Europako Zainketa Estrategiak** (Europako Batzordea, 2022) laguntza-zerbitzu kalitatezko eta eskuragarriak bermatu, zaintzaileen lan-baldintzak hobetu eta genero-desberdintasunak murriztu nahi ditu. Sei jarduera-ildo ditu, besteak beste, zerbitzuak hobetzea eta iraupen luzeko zainketak bultzatzea, zaintzan inbertitzea eta datu-sistema sendoagoak sortzea.

Europako ekosistema horretan, OMEk **State of Long-Term Care (2024)** dokumentua garatu du.

Baliabide tekniko hori Europako Zainketen Estrategiari lotuta dago, eta kontzeptu- eta metodologia-esparru bat eskaintzen du, epe luzeko eta kalitate handiko arreta eskuratzeari buruzko Kontseiluaren Gomendioa ezartzen laguntzeko. Horrekin batera, **EBren Belaunaldien arteko Ekitate Estrategia** eraikitzen ari dira, eta, horren bidez, belaunaldien arteko elkarriketa indartu nahi da Europako politikak gaur egungo eta etorkizuneko biztanleen interesak integratzen dituztela bermatzeko, partaidetza-prozesu digital baten bidez. Amaitzeko, **“Ageing is Living”** estrategiak, gaur egun OMEren 2026-2030 Europako Lan Programaren barruko (EPW2) atal moduan garatzen ari denak, bizi-itxaropenaren eta bizi-itxaropen osasuntsuaren arteko arrakala murriztu nahi du lau jardun-arloren bidez —prebentzioa, zaintza- eta osasun-sistemak eraldaketa, ingurune egokituen sorrera eta zahartzea berrirudikatzea—, ongizatea eta bizitza-helburua abiapuntu hartuta. Estrategia hori OMEren Europarako Eskualde Batzordearen 75. bilkuran berrikusiko dute, eta, horrela, bizitza- eta zaintza-gaietan nazioarteko, Europako eta nazioarteko ahaleginak lerrotzeko indartuko da.

Mugarri horiek konpromiso orokor bat erakusten dute zahartzea lehentasun politiko moduan aitortzeko, eta horretan aurrera egiteko **eskubideen, osasunaren sustapenaren, parte-hartzearen, bizitza-helburuaren, kohesioaren eta gizarte-inklusioaren ikuspegitik**.

Hainbat herrialdek zahartzeari aurre egiteko politika publiko berritzaileetan aurrera egin dute, prebentzioko, komunitateko eta eskubideetan oinarritutako ikuspegietatik abiatuta. **Frantziak “Vieillir en bonne santé”** estrategiatik 2024-317 Legerako bilakaera izan du. Legeak autonomia indartu, bakardadeari aurre egin, egoitzak aratu eta tratatu txarren aurrean eskubideak babesten ditu. **Kanadak, “Bien vieillir chez soi”** ekimenaren bidez, inpaktu-ebidentzia daukaten etxez etxeko proiektuen finantzaketa bultzatu eta bo-

luntariotza-elkarteak indartzen ditu zerbitzuak zabaltzeko. **Alemaniak**, Familia, Hirugarren Adina, Emakumeak eta Gazteria Ministerioaren bidez, **Dementziaren kontrako Estrategia Nazionala** garatu du, erantzukidetasun soziala eta hainbat eragileren parte-hartzea oinarri hartuta. **Finlandiak, National Programme on Ageing to 2030** programaren bidez, zahartzea ikuspegi integraletik lantzen du, enplegu seniorrra, gaitasun digitalak, boluntariotza, etxebizitza, aniztasuna, autodeterminazioa eta adierazleetan oinarritutako ebaluazioa kontuan hartuta. Modu horretan, Europako eredurik osatuenetako eta intersektorialenetako bat da.

Beste herrialde batzuk ere aurrera egiten ari dira, eredu prebentiboagoetara, komunitarioagoetara eta etorkizuneko erronketara egokitua-goetara. **Ingalaterrak**, adinekoentzako estrategia bakarra izan gabe, **“10 Year Health Plan for England: fit for the future”** egin zuen, hiru eraldaketa giltzarri oinarri hartuta: ospitaletik komunitatera igarotzea, sistema analogikotik digitalera eta gaixotasunetik prebentziora, herritarrekin eta profesionalekin prozesu parte-hartzaileak eginda. **Australia**, aldiz, eraldaketa estruktural sakona egiten ari da **Aged Care Act** berriarekin: 2025eko azaroan jarri zen indarrean, eta adinekoen eskubideak indartzen ditu. Horrekin batera, **Support at Home** programa dauka, etxez etxeko zerbitzuak bateratzen dituen, pertsonak haien etxebizitzetan luza-roago bizitzeko. Horrez gain, **“South Australia’s Plan for Ageing Well 2020-2025”** bezalako ekimenek erakusten dute eskualdeek konpromisoa dutela komunitate inklusibo, hurbil eta bizitza independentean oinarritutakoekin.

Oro har, esperientzia horiek guztiek joera konbergentea erakusten dute: **autonomia sustatzea, eskubideak bermatzea, zerbitzu komunitarioak dibertsifikatzea eta osasun- eta zainketa-sistemak** eraldatzea biztanleen zahartzeari aurrea hartzeko.



Euskadi

Euskadik zeharkako esparru estrategikoa garatu du bizi-luzetasunaren, zainketen eta eta gizarte-kohesioaren erronkei aurre egiteko: Eusko Jaurlaritzaren **“Euskadi Berria. Ongizatean hazten”** estrategia. Estrategia horrek etorkizuneko eraldaketa, jasangarritasuna eta ongizatea oinarri ditu, berrikuntzatik abiatuta. **2024-2028 Gobernu Programak** modu esplizituan adinekoen zuzendutako ekimenak biltzen ditu, hainbat esparrutan, hala nola osasuna, etxebizitza, segurtasuna eta enplegu seniorra, eta bakardadea lantzen du autonomia, segurtasuna eta bizitza bete indartuta. Ikuspegi hori funtsezko gizarte-konpromisoekin osatzen da, hala nola zainketen eredu berria ezartzea, zaurgarritasunari arreta jartzea eta komunitatea indartzea. Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzak funtsezko planak eta estrategiak ezarri ditu, hala nola: **Erronka Demografikorako 2030erako Euskal Estrategia** (Gizarte Trantsizioaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia), zahartzea funtsezko erronka moduan ezarri eta aldaketa demografikoari aurre egiteko osasuna, zainketak, autonomia, berdintasuna eta lurralde-kohesioa konbinatzen dituen ekintza-eredu batean sartzen duena; **Euskadiko Arreta Soziosanitariorako Estrategia 2021-2024** (Osasun Saila, 2021), xede moduan duena arreta soziosanitarioa ematea pertsonak zaintzeko bizi-zikloaren etapa guztietan; eta **Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitarioa 2021-2030**, xede moduan duena familia zaintzaileei laguntzeko sistema hedatzea, honako hauek bermatzeko ekimenen bidez: laguntzarako eta atsedenerako zerbitzuetarako sarbide unibertsala, eta kasu bakoitzera egokitutako zaintza instituzionaleko eta familia-zaintzako plana; familia zaintzaileentzako gizarte- eta osasun-arreta hobetzea; zainketa eta/edo gainkargako egoera desegokiak prebenitu, detektatu eta jorratzea; enpleguaren eta zaintzaren bateragarritasuna erraztea; eta gizartean aitortuta dagoen eta formala eta egokia den fa-



milia-zainketa sustatzea. Horrez gain, aipatu behar dira **Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia**, esku-hartze sozialaren esparruan gizarte-sarea eta sektoreen arteko lankidetzak bultzatzera bideratua, eta **Euskadiko Osasun Plana 2030**, bizitza beteko zahartzea sustatzeko helburu zehatzak dituen ahalduztzearen, ingurune lagunkoien eta osasun- eta gizarte-koordinazioaren bidez. **EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoak (2023-2026)** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sendotzen laguntzen du, eta arreta berezia eskaintzen dio egoitza-zentroak eraldatu eta bizikidetzak unitate txikiagoak eta etxe-izaerakoak sortzeari. Amaitzeko, **Euskadiko Familiei, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakunde arteko V. Planak (2025-2030)** erantzukidetasun sozial eta erakunde artekoan oinarritako eredu proposatzen du, eta familia-, gizarte- eta komunitate-sarea indartu nahi du. Planaren barruan adinekoekin lotzen diren helburuak sartzen dira, hala nola zainketetan erantzukidetasuna sustatzea.

Horrez gain, aipagarria da oraintsu argitaratutako **Berrikuntzaren Itsasargiak (2026)** dokumentua. Horretan, Euskadik berrikuntzari lotuta dituen arlo nagusiak eta lehentasunak definitu dira, bederatzi itsasargitan, oinarri moduan hartu diren hiru trantsiziori erantzunez; trantsizio digital eta teknologikoa, energia- eta ingurumen-trantsizioa eta trantsizio soziodemografiko eta sanitarioa. Itsasargi horien artean, “Demografia eta erronka soziosanitarioa” gaiari eskaintakoak zenbait erronkari erantzun nahi die, besteak beste, zahartzeari Euskadin. Horri heltzeko ezagutza sortu nahi da, eta irtenbideak eskaini nahi dira zahartze aktibo, osasuntsu eta esanguraduna/helburuduna sustatzeko. Berrikuntza gida izatea nahi da, ezagutza ongizate bihurtzeko.

Egitura estrategiko hori zenbait akordio instituzional eta sozial bidez artikulatzen da. 2023an **Elkarrizketa Sozialeko Mahaiaren**

Akordioa lortu zen **Zainketen aldeko Herrialde-Itun** batera bidean. Funtsezko gaiak identifikatu ziren, hala nola genero-berdintasuna zainketetan, sektoreko enplegua hobetzea, zainketa-lanaren balorazio ekonomikoa eta aldaketa demografikoaren ondorioz sortutako eskaeraren gorakadari erantzuteko beharra. Modu osagarrian, **Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak** itun horren oinarriak adostu zituen eskubideen, generoaren, interseksionalitatearen eta espazio komunitarioaren zentraltasunaren ikuspuntutik, hirugarren sektorearen funtsezko eginkizuna barne hartuta. 2024ko otsailean, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko **erakundearteko akordio** baten bidez, bost oinarri komun eta hamalau konpromiso ezarri ziren zainketa-eredu publiko, komunitario, erantzukide eta gizarte-kohesiora bideratua bultzatzeko. Amaitzeko, **Euskadiko Osasun Itunak (2024)** arreta kalitatezko, jasangarri eta ekitatiboaren aldeko apustua egiten du. Gaur egun, inplementazio-fasean dago.

Oro har, plan eta akordio horiek guztiek zainketen eta zahartzaroaren euskal ereduak sendotzen dute. Eredu horrek lehentasuna ematen die eskubideei, autonomiari, zerbitzu integratuei, konponbide komunitario eta berrietaileei demografiaren orainaldiari eta etorkizunari aurre egiteko.

Euskadin ezarritako estrategiez eta planez gain, lurralde bakoitzak ekimen bereziak planteatu ditu, modu partikularrean dituzten erronkei erantzuteko. **Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian** ekimen estrategikoen multzoa dago lurralde bakoitzak zahartzeari eta zainketei emandako erantzuna indartzeko, ikuspegi propio baina osagarrietatik.

Arabako Foru Aldundiko 2023-2027 aldirako Gobernu Planak adineko pertsonekin lotutako ekimenak planteatzen ditu, esaterako GIZAREA eredu egoitza-arretan, etxer lagun-



tza-zerbitzuak indartzea, desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta bizitza independentea sustatzea, eta nahi gabeko bakardadearen aurkako proiektuak, hala nola “Araba a punto”. Bestalde, **Araba Helburu** prozesu parte-hartzaileak “Adineko Pertsona Aktiboak” erronka espezifikoa du, autonomia, eskubideak eta zahartze osasuntsua sustatzera bideratua. Amaitzeko, **Arabako Zainketen Agenda** eraikitzen ari dira, prozesu parte-hartzaile baten bidez.

Bestalde, **Gipuzkoak** aldaketa estrukturala bultzatzen du “**Etorkizuneko bizilekurako trantsizioa**” **Liburu Berdearen** bidez. Liburuan egoitza-eredua eraldatzeko zazpi ardatz definitzen dira —besteak beste, pertsonalizazioa, gobernantza kolaboratiboa, berrikuntza, prestakuntza eta ebaluazioa—, urteroko jarraipenarekin. Lurralde horrek pertsonalizazio-erreminta espezifikoa ere garatu ditu, hala nola **Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuak Pertsonalizatzeko Gida (2021)** eta Gizarte Zerbitzuen **Pertsonalizazio Adierazleak (2023)** argitaratu dira, aurrerapen-adie-

razleak ezartzeko metodologia parte-hartzaileekin egindakoak. Era berean, azpimarratzekoa da **Adinberriaren** eginkizuna, **Hariak** bezalako proiektuarekin nahi gabeko bakardadeari aurre egin nahi diona, eta **Berrikuntza Agenda Estrategikoa 2024-2027**, zahartze aktibo, osasuntsu eta belaunaldiartekora bideratutako proiektuak sustatzen dituen.

Bizkaian, lurralde-erantzunaren erdigunean gizarte-kohesioa eta sendotze komunitarioa daude, **BizkaiSare 2030 Estrategiaren** bidez. Esparru zabal horrek bakardadea prebenitu, lotura komunitarioak sendotu eta sektorearteko aliantzak aktibatu nahi ditu. Horrez gain, aipatzekoak dira **Iraupen Luzeko Zainketetan Trantsizioa sustatzeko Bizkaiko Plana (2023-2027)**, oinarrian jartzen duena etxebizitza sustatzea eta egoitza-eredua eraldatzea (bizikidetzak unitateak), eta **etxeTIC** bezalako zerbitzuak jasotzen dituen; “**Bizkaia, adin guztietarako lurraldea**” programa sustatzea, lurraldean adineko pertsonen hiri lagunkoien proiektua ezarri nahi du-

na; eta **Bizkaiko Estrategia Erronka Demografikoaren aurrean**, gaur egun egiten ari dena.

Euskadik esparru estrategiko zabal eta koherentea eraiki du, bizi-luzetasuna, zainketak eta gizarte-kohesioa politika publikoen erdigunean kokatzen dituen eta autonomia, prebentzioa, bizitza komunitarioa eta erantzukidetasuna indartzen duten ekimenak artikulatzen dituen. Zeharka, plan guztiek –hala nola Gobernu Programa 2024-2028 eta Erronka Demografikoko Euskal Estrategia 2030, estrategia soziosanitarioak, hirugarren sektorearen bultzada eta Osasun Plana– ikuspegi berean bat egiten dute, oinarriztat hartuta eskubideak, arreta pertsonalizatua, koordinazio sanitario eta soziala, eta ekosistema komunitarioa indartzea. Horrekin batera, akordio instituzional eta sozialen multzoa dago, zainketen eredu publiko eta erantzukidea sendotzen duena. Modu paraleloan, Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak lurralde-erantzun osagarriak ematen dituzte –bakardadea, pertsonalizazioa, berrikuntza, egoitza-eraldaketa eta lagunkotasuna oinarri hartuta–, eta horrela indartu egiten da **zahartze duin, aktibo, erabateko eta komunitatean integratua bermatzeko** helburu komuna.

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak Gizarte Zerbitzuen Legea eguneratzen ari da, gaur egungo gizarte-errealitatera egokitzeko. Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroa berrikusita, aldaketa esanguratsuak ikusten dira herritarren artean. Horregatik, garrantzitsua da araudia aldatzea biztanleriaren zahartzeari, gizarte-aniztasun gero eta handiagoari eta gizarte-eskubideen bilakaerari erantzuteko. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak gizarte-zerbitzu malguagoak, hurbilagoak eta herritarren errealitateetara egokituago daudenak eman nahi ditu, gizarte-eskubideen bermea indartuz.

Egoitzen Dekretua ere eguneratzen ari dira. Arreta eta Zainketa moduluetan oinarritutako

eredu batera igaro nahi da, arreta- eta bizitza-plan pertsonalizatuekin eta erreferentziako langilearen irudiarekin koordinatuta. Helburua kalitatearen etengabeko hobekuntza da, ebaluazioa eta berrikuntzaren sustapena oinarri hartuta.

Testuinguru hori guztia kontuan hartuta sortzen da ondoren aurkeztuko dugun Adinekoekiko Euskal Estrategia 2026-2028.

3

HELBURUA ETA
IKUSPEGIA

HELBURUA

Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak Euskadin eragin nahi du bizi-luzetasuna bizitzea komunitateari ekarpenak egiten jarraitzeko aukera moduan, adineko guztien eskubi-deak aitortzea, adinekoen aniztasuna sustatzea, belaunaldien arteko elkartasuna, komunitate inklusiboak eta adinekoek bizitza-ibilbide osoan ongizate integrala eta bizitza betea eta esanguraduna izateko beharrezko laguntzak, zerbitzuak eta inguruneak dituztela bermatzea.

2026-2029 aldirako **Adinekoekiko Euskal Estrategiak** jarraipena ematen dio aurreko strategiari. Euskadi ikusi nahi da guztiontzako eskualde moduan, inklusiboa, komunitarioa eta lagunkoia. Adinekoek aukera izan behar dute haien bizitza autonomiaz, segurtasunez, ongizatez, parte-hartze aktiboz garatzeko, eta haien esperientziarekin eta ezagutzarekin komunitateari ekarpenak egin behar dizkiote.

Hori lortzeko, estrategia honen **helburu nagusia** hau da:



Adineko guztien ONGIZATE INTEGRALA sustatzea, genero-ikuspegia kontuan hartuta eta zainketak behar dituzten adinekoak barne hartuta, eta ekimen berritzaileak sustatzea bizitza-proiektuak, bizitza betea, belaunaldien arteko elkartasuna eta komunitate inklusiboak garatzea errazteko.

Ongizate integrala egoera bat da, eta horretan pertsonak bizitzako dimentsio guztietan -fisikoa, emozionala, soziala eta bitala-, garatu daitezke, bizitza betearen ikuspegiarekin bat etorritik. Ongizate hori bakar-bakarrik egon daiteke belaunaldien arteko elkartasuna lantzen duen gizarte batean, eta komunitate inklusiboak eskatzen ditu, loturak sortzeko, aniztasuna aitortzeko eta pertsona guztiei bizitza sozialean parte-hartze aktiboa errazteko pertsona guztiei bizitza sozialean parte-hartze aktiboa errazteko.

IKUSPEGIA

Ildo horretatik, estrategiak funtsezko bi zutabe ditu:

- **Bizitza betearen ikuspegia**, ongizate integrala eta pertsonen garapen bitala ekintzaren erdigunean kokatzen dituena.
- **Belaunaldien arteko elkartasuna**, belaunaldien artean elkarri laguntzeko harremanak bultzatzen dituena gizarte kohesionatu, bizidun eta jasangarriagoa eraikitzeko.

Bizitza betea

Bizitza betea dimentsio askotako bizi-esperientzia moduan ulertzen da, izaera pertsonal eta kolektiboa duena, bizi-zikloan zehar eraikitzen dena eta, bizi-luzetasun handiko testuinguruetan, honela adierazten da: **pertsonen ongizate integrala mantentzeko, autonomia gauzatzeko, harreman esanguratsuei eusteko, komunitatean modu aktiboan parte hartzeko eta haien bizitza-proiektuari esangura eta jarraipena emateko gaitasuna da, baita hauskortasun edo mendekotasun egoeretan ere, genero-ikus-**

pegia kontuan hartuta. Modu horretan, ez da emaitza indibidual moduan bakarrik ulertzen, prozesu erlazional eta erantzukide moduan baino. Duintasun, ekitate, parte-hartze eta ondasun erkidearekiko ekarpenari mesede egiten dioten testuinguru sozial, komunitario eta instituzionalak behar dira, eta aitortzen da gizarte zatitu batean ezin dela osotasun indibidualik egon.

Estrategia honen diseinuan, bizitza betearen ikuspegiak pertsonen bizi-esperientzia ekin-tza publikoaren erdigunean kokatzen du, eta zahartzea ulertzen da ez gainbehera-etapa baten moduan, ezpada bizi-luzetasun osoa zeharkatzen duen prozesu askotariko eta dinamiko moduan baino. Ikuspegi horretatik, politikak ez dira mugatzen beharrianak edo defizitak artatzera; horren ordez, baldintza sozial, komunitario eta instituzionalak sortzen dituzte ongizate integralari, autonomiari, harreman esanguratsuei, parte-hartzeari eta bizi-proiektuaren esangurari eusteko, baita hauskortasun testuinguruetan ere. Bizitza betearen ikuspegiak zahartzearen begirada zeharkako eta erantzukidea indartzen du, eta ingurune ahalmen-emaileak, gizarte-kohesioa eta sektorearteko gobernantza sustatzen ditu bizi-luzetasun handiagoa duen eta ekitatiboagoa den gizarte baterako osagai giltzarri moduan.

Ikuspegi horren oinarrian **oinarrizko beharri-
zanak asetzea** dago, unibertsalak eta interde-
pendenteak direla ulertzen baita, eta horiek ez
daudenean arriskuan jartzen baitira ongizate in-
dibiduala zein gizarte-elkarbizitza. **Beharrian
horien barruan sartzan dira, besteak beste,
osasun fisiko eta mentala eta segurtasuna es-
angura zabalean, lotura afektibo eta komuni-
tarioak, gozamen sortzaile eta ludikoa, inguru-
nea zaintzea eta ezagutzara eta teknologiar-
a sarbidea izatea, zein bizitzaren zentzuaren
bilaketa**. Zehatz esanda, bizitza betea izateko
oinarrizko beharri-
zanek sei dimentsio inter-
dependenteko multzoa hartzen dute barruan:



- 1) beharrian fisiologikoak, mugimenduari eta osasunari lotutakoak, gorputzaren eta buruaren oreka mantentzen lagundu eta gaixotasuna eta mendekotasuna murrizten dituztenak;
- 2) segurtasun- eta babes-beharri-
zanak, egonkortasun fi-
sikoa, psikologikoa, soziala eta ekonomikoa bermatzen dituztenak;
- 3) ezagutzeko beharri-
zana eta teknologiaren erabilera eta natura zaintzea, ingurunea ulertzea eta zaintzea bideratuta eta baliabide zientifiko eta teknologikoak modu ja-
sangarrian erabiltzera orientatuta;
- 4) beharrian afektibo, sozial eta komunitarioak, funtsezkoak baitira loturak eraikitzeko, berdintasun-, justizia- eta elkartasun- balioekin bizitzeko eta gizarte-bizitzan parte hartzeko;
- 5) beharrian ludiko, estetiko eta aisiakoak, gozamena, sormena eta adierazpen pertsonala gehitzen baitituzte; eta
- 6) bizitzari zentzua emateko beharri-
zana, eta ho-
rrek bultzatzen du norbere potentziala garatzea,



ekintzak balioen arabera orientatzea eta esanguraren duen bizitza-proiektu bat eraikitzea. Horiek guztiak asetzeko bizitza betearen eta giza garapeneraren ikuspegiaren oinarria dira bizi-zikloaren edozein etapatan, eta horretarako garrantzitsua da genero-ikuspegia ere kontuan izatea. Beharrian horiei estaldura egokia emanda –kanpoko baliabideen eta gaitasun eta eskumen pertsonalen aktibazioaren bidez–, bizitza bete askotariko eta posibletarantz aurrerapausoak ematen dira eta, horietan, pertsona bakoitzak, gizon zein emakume, bere autonomia gauzatu, parte-hartze soziala indartu eta komunitatearen ondasun erkidera ekarpena egin dezake.



Belaunaldien arteko elkartasuna

Bizitza betearen ikuspegiak harago, estrategia-aren oinarria **belaunaldien arteko elkartasuna** da, zahartze-politikak egituratzen dituen esparru moduan. Bizitza luzeko gizarte batean, ongizatea eta gizarte-kohesioa honako hauen arabera direla aitortzen da: **oreka, elkarrekitasuna eta belaunaldien arteko erantzukidetasuna**. Ikuspegi horretatik, zahartzea ez da lantzen adinekoen gai eksklusibo moduan, gizarte osoa eta bizi-zikloaren etapa guztiak inter-

pelatzen dituen erronka kolektibo moduan baino. Esparru horretatik sustatzen dira elkartzea, lankidetzeta eta balioen, ezagutzen eta zainketen transmisioa belaunaldien artean, komunitatearen ondasun erkidea indartuta.

Gaur egungo eraldaketa demografiko, sozial eta ekonomikoaren testuinguruan, belaunaldien arteko elkartasuna funtsezko osagaia da gizartearen jasagarritasunerako eta kohesiorako. Gaur egungo errealitatean, bizi-luzetasunak gora egin du, bizitza-ibilbideen aniztasuna dago, eta zainketak gero eta konplexuagoak dira; hori dela eta, **belaunaldien arteko loturak sendotzea** funtsezkoa da adin-taldearen artean zatitze-, desberdintze- edo lehia-dinamikak saihesteko. Belaunaldien arteko elkartasunak sustatzen ditu elkar ezagutzea, erantzukidetasuna eta eskubi-deen eta ekarpenen arteko oreka bizitza-zikloan zehar. Modu horretan, mesede egiten zaio gizarte bidezkoago, erresilienteago eta kohesio-ituagoak sortzeari, orainaldiko eta etorkizuneko erronkei modu komunitarioan erantzuteko gai direnak.

4.

PRINTZPIOAK



PRINTZIPIOAK

Adinekoekiko Euskal Estrategia 2026-2029, bizitza betearen eta belaunaldien arteko elkartasunaren ikuspegiarekin, **pertsonak, komunitateak** eta **ingurunea** dimentsio interdependente moduan aitortzen dituen esparru integral batean oinarritzen da. Horietako bakoitzak funtsezko giltzarriak ematen ditu ekintza publikoa ongizate integralerantz eta gizarte-garapen orekatu, inklusibo eta iraunkorrerantz orientatzeko. Jarraian zerrendatzen diren **printzipioak** oinarri dira gaur egungo konplexutasunari erantzuteko eta etorkizuneko erronkei aurrea hartzeko gai diren proiektuak artikulatzeko.

Printzipio horiek nazioarteko erakunde esanguratsuenak arautzen dituzten balioak aztertuta egin dira, hala nola Nazio Batuak edo Europar Batasuna, komunitate zientifikoa, egindako kontsultetan parte hartu duten agenteak, EABko lantaldea eta, nola ez, Eusko Jaurlaritza. Printzipio horien hautaketa, gainera, aurreko estrategian jasotakoetatik abiatzen da, eta kontrastatu, eraldatu eta finkatu egin dira.

Hautatutako printzipioak 7 baliotan laburbiltzen dira, eta balio horiek 3 dimentsiotan sailkatu dira: pertsonala, komunitarioa eta testuingurukoa.

DIMENSIO PERTSONALA

1. Autorrealizazioa
2. Aniztasuna

TESTUINGURUA ETA INGURUNEAK

3. Jasangarritasuna

DIMENSIO KOMUNITARIOA

4. Berdintasuna
5. Partaidetza
6. Ekitatea
7. Elkartasuna

DIMENSIO PERTSONALA

Dimentsio pertsonalean sartzen dira pertsonei eta horiek gizabanako moduan ulertzeko moduari zuzenean aipamen egiten dioten printzipioak. Dimentsio honek pertsona erdigunean jartzen du, eta hazteko gaitasuna, autonomia eta bizi-proiektua aitortzen dizkio.

Autorrealizazioa

Autorrealizazioa zuzenean lotuta dago **pertsonen autonomiarekin eta beren bizitza-proiektua askatasunez erabakitzeko duten autodeterminazioarekin**. Garatzeko, hazteko eta esanahia bilatzeko etengabeko prozesua da, eta pertsoneri aukera ematen die bizitza betea eta helburu argi bat izan dutela sentitzeko. Printzipio honen bidez ziurtatu nahi da Estrategia ekintza jakin batzuetara bideratzea, hots, adinekoek beren bizitza-proiektuari buruz erabakitzea, bizitza-helburu propioak planteatzea eta, ahal den neurrian eta beharrezko laguntzekin, helburuak beren kabuz lortzea. Modu horretan, autorrealizazioa prozesu dinamikoko moduan ulertzen da, pertsona guztientzat oztopoak ezabatu eta aukerak zabaltzen dituzten politikek lagunduta.

Aniztasuna

Aniztasun printzipioaren bidez, aitortu nahi da **gizaki bakoitza bakarra dela** eta aniztasuna eta desberdintasunak bizitzako etapa guztietan gertatzen direla. Printzipio honek azpimarratzen du **adinekoengan talde heterogeneo baten moduan pentsatzeak** duen garrantzia. Taldea adin, esperientzia, lan-bizitza, prestakuntza, afizio, balio, gustu, sinesmen, bizi-estilo eta lehen-tasun desberdinak dituzten pertsonen osatzen dute. Estrategia honen helburua da bereizkeriarik gabeko inguruneak eta erantzun egokituak sustatzea, aukera-berdintasuna eta eskubideak erabat gauzatzea bermatzeko.



DIMENSIO KOMUNITARIOA

Komunitateetan gizarte-harremanak ehuntzen dira eta bizikidetzara, erantzukidetasuna eta kide izatea indartzen dira.

Berdintasuna

Berdintasun-printzipioak ezartzen du pertsona guztiek **eskubide, aukera eta baldintza berberak izan behar dituztela haien bizitza duintasunez garatzeko**, eta ezin dela inongo bereizkeriarik egin jatorria, generoa, adina, orientazioa, gaitasunak, egoera sozioekonomikoa edo bestelako inguruabar pertsonal edo sozialak aintzat hartuta. Legearen aurrean eta baliabide eta zerbitzuekiko sarbidean tratatu berdina bermatzeaz gain, zenbait talderi eragiten dieten desberdintasun estrukturalak aitortzea eta zuzentzea



inplikatu du. Estrategia honen testuinguruan, bereziki aipagarria da **genero-berdintasuna** azpimarratzea, emakumeak gehiengoa baitira bizitzako etapa aurreratuetan, eta bizitza-ziklo osoan pilatutako desberdintasunei aurre egiten diete. Modu horretan, estrategiak apustua egiten du bazterketa eragiten duten baldintzak eraldatu eta pertsona guztientzat bizitza duina, betea, anizkuna eta komunitarioa bermatzen duten politiken alde, zahartzaroan irauten duten genero-arrakalei arreta berezia eskainiz.

Ekitatea


Ekitatea berdintasun- eta aniztasun-printzipioekin lotuta dago. Ekitatea berdintasunezko tratua baino gehiago da; izan ere, **neurri berezituak hartzea eskatzen du** jatorrizko **desberdintasunak** konpentsatzeko, oztopo estrukturalak ezabatzeko eta pertsona bakoitzak bere eskubideak berdintasun-baldintza errealetan gauzatzeko behar duena jasotzen duela bermatzeko. Beraz, ez da arau bat guztientzat berdin aplikatzea, ezpada pertsona bakoitzaren testuinguru eta baldintzak kontuan hartuta aplikatzea, inori kalterik egin gabe.

Printzipio horren esparruan planteatzen da baita ere **belaunaldien ateko ekilaterantz** pausoak ematea, egiturazko konpromiso batetik abiatuta. Hori dela bide, politikek bermatu behar dute orainaldiko zein etorkizuneko belaunaldien oparotasuna.

Partaidetza

Partaidetza-printzipioak aitortzen du pertsona eta kolektibo guztiek eskubidea dutela modu aktibo, informatu eta esanguratsuan parte hartzeko haien bizitzan eta komunitatean eragina duten erabakietan. Baldintzak eta mekanismoak sortu behar dira herritarrek haien beharriak, iritziak eta proposamenak adierazi ahal izateko eta politika publikoen planifikazioan,

diseinuan, betearazpenean eta ebaluazioan eragiteko. Printzipio hau Estrategia honen diseinuaren oinarrian dago; izan ere, Estrategia bera adineko pertsonekin “eurekin” garatu da. Estrategia honek adineko pertsonen partaidetza sustatzen du ez bakarrik baliabide eta zerbitzuen onuradun moduan, ezpada erabakiak hartzen dituzten eragile moduan eta politiken eta jarduketan diseinuan, planifikazioan, inplementazioan eta/edo ebaluazioan laguntzen duten pertsona moduan, partaidetza-bide egituratu, adostu eta ordezkatzailen bidez. Bide horiek



botere publikoekin elkarrizketa egonkorra artikulatzea ahalbidetuko dute, adineko pertsonen entitate eta erakundeak integratuko dituzten espazioak, eta elkartearen sarea elkarrizketa zibil eta sozialaren funtsezko eragilea dela aitortuko dute. Modu horretan, diagnostiko, proposamen eta erabaki partekatuek modu kolektiboan erakitzeari mesede egiten zaio, adineko pertsona antolatuek haiengan eragina duten politiken di-

seinuan eta garapenean eragiteko eta laguntzeko duten gaitasuna indartuz. Partaidetza-printzipio hori lortu ahal izateko, ezinbestekoa da kolektiboaren alde lan egiten duten elkarteek haien arteko loturak indartzea, eta horrela elkarte-mugimendu egituratu eta ordezkatzaila lortzea.

Elkartasuna

Elkartasun-printzipioak pertsona, talde eta belaunaldien arteko **erantzukizun partekatua** berresten du, elkarri laguntzeko eta **ongizatea**

bermatzeko. Aitortu egiten da gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-erronkei ezin zaiela modu isolatuan aurre egin, baizik eta lankidetzan, erantzukidetasunean eta komunitatean elkarri lagunduta. Horretarako, beharrezkoa da elkartasun bikoitzeko sistema bat sendotzea; elkartasuna iraganarekin eta etorkizunarekin. Printzipio horrek orientatzen dituen politiken bidez, lotura komunitarioak sendotu, gizarte-kohesioa

sustatu eta eskubide, aukera eta baliabideekiko sarbidean inor atzean ez geratzea bermatzen da.

TESTUINGURUAREN DIMENTSIOA

Dimentsio honen barruan jasangarritasun-printzipioa sartzen da. Ingurunea –fisikoa, ekonomikoa eta soziala– bizitza komunitarioa eta autorrealizazio pertsonala baldintzatu eta ahalbidetzen dituen esparrua da.

Jasangarritasuna

Jasangarritasunak **bermatzen du ekintzek eta politikek denboran jarraitzea.** Bideragarritasun ekonomikoari, ingurumen-erantzukizunari eta gizarte-ongizateari egiten dio aipamen modu espezifikoan. Printzipio honek bermatzen du orainaldiko eta etorkizuneko belaunaldiek egingako aurrerapenak eta lorpenak mantentzea, hori lortzeko beharrezkoak diren bitartekoak izanda. Gaur egungo hazkunde-zikloa aprobetxatu behar da ekoizpen produktibo eta eraldatzaileak aktibatu eta etorkizunerako prestatzeko, ondasun erkideari eusten dioten zutabeak hobetuta.

Printzipio horiek guztiak osagai ukaezinak dira eta Estrategiari koherentzia eta sendotasuna ematen diote, ikuspegiari, helburuei, ardatz estrategikoei eta jarduketeki dagokienez.



ESKU-HARTZERAKO ARDATZAK

Esku-hartzerako ardatzak **estrategia egituratu eta ekintza orientatzen duten gidalerroak** dira. Lan-esparru handiak dira, eta lehentasunak antolatu, ikuspegi giltzarriak definitu eta elkarren artean koherenteak diren programak, proiektuak eta neurriak artikulatzen dituzte. Ardatz bakoitzak jorratu beharreko helburuen eta bultzatu beharreko eraldaketen multzoa mugatzen du.

Ardatz horiek lotura zuzena dute Estrategiaren ikuspegiekin eta helburu orokorrarekin, eta trakzio-proiektuek gauzatzen dituzten ekintzetan materializatzen dira.

Adinekoekiko Euskal Estrategia 2026–2029 5 ardatzetan egituratzen da, eta 5 helburu handi ditu:



- ✓ - Trantsizioak eta bizitza-proiektuaren garapena erraztea, komunitatean bizitza bete izateari mesede egiteko.
- ✓ - Zainketen kalitatea eta jasangarritasuna sustatzea.
- ✓ - Ongizatea sustatzea, bakardadeei aurre eginda.
- ✓ - Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea.
- ✓ - Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.

Ardatz horiek, era berean, zenbait **helburu espezifiko** dituzte; helburu horiek modu eraginkorrean hedatzen dira elkarri lotuta dauden **trakzio-proiektu** ugaritan.



Ardatzen eta trakzio-proiektuen zerrenda

TRAKZIO-PROIEKTUA	A1	A2	A3	A4	A5
AGENDA NAGUSIA	✓	✓	✓	✓	✓
BETION	✓	✓	✓		✓
BIZIARIA					✓
BIZIHABI	✓		✓	✓	
SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIA	✓				
EUSKADI LAGUNKOIA BERRIA	✓		✓	✓	✓
HELDUAK ZABALTZEN	✓		✓	✓	✓
ZAINKETEN ZEHARKAKO PLANA	✓	✓	✓	✓	✓
COHOUSING PROGRAMA	✓		✓		
LANDA-INGURUETAKO UDALERRI TXIKIETAN NAHI GABEKO BAKARDADEA PREBENITZEKO PROIEKTUA	✓	✓	✓	✓	✓
SOLELAB	✓		✓	✓	✓
HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK ¹				✓	✓
TALENTO SENIOR SOLIDARIO	✓			✓	
TRANSIS LAB 1	✓	✓	✓	✓	✓
TRANSIS LAB 2	✓	✓	✓	✓	✓
ZAINDOO		✓	✓		

¹ Hirugarren sektoreko proiektuei emandako urteroko dirulaguntzetan ardatz guztiekin lotutako ekimenak gauzatu daitezkeen arren, hemen 4. ardatzarekin lotuta dago modu eskusiboan, hau da, foku nagusia hirugarren sektore soziala indartzean jartzen da.

A1: TRANTSIZIOAK ETA BIZI-PROIEKTUA BIZITZA BETE BATERAKO

Estrategiaren lehen ardatza **bizi-trantsizioetan laguntzera eta erraztera** bideratuta dago. Aitortzen da pertsona bakoitzak aldaketa-uneak igarotzen dituela (biografikoak, sozialak, lanekoak, harremanen arlokoak edo osasun arlokoak), eta horiek eragin zuzena dutela bizitza-proiektu esanguratsua eraiki eta zabaltzeko. **Bizitza betearen** ikuspegitik, trantsizio horiek ez dira ulertzen galera- edo itxiera-etapa moduan, ezpada gaitasunak indartzeko, desirak berrorientatzeko, bitartekoak berrantolatzen eta autonomia norberaren nahiekin koherentzia mantentzeko. Horretarako, funtsezkoa da bermatzea, trantsizio bakoitzean, pertsonak laguntzak, informazioa, inguruneak eta akonpainamenduak izatea oinarritzko beharrezan asetzeko eta potentziala komunitatean garatzen jarraitzeko, genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Beraz, ardatz hau orientatuta dago adineko pertsonen bizitza bete garatzen laguntzen dieten inguruneak eta aukerak bultzatzera. Bizitza bete pertsona bakoitzak bere bizitza-proiektu autonomiaz, esanguraz eta ongizatez eraikitze-prozesu moduan ulertzen da. Horretarako, ardatzak aholkularitzan eta orientazioan zentratutako jarduerak konbinatzen ditu, eta, horrela, erabaki informatuak errazten dira. Ekimenen bidez, partaidetza komunitarioa indartzen da, eta adineko pertsonen aukera ematen zaie haien gaitasunak, talentuak eta ezagutzak ondasun erkidera gehitzeko. Aldi berean, arreta berezia eskaintzen die zaugarritasun-egoeran daudenei, eta bermatzen zaie haien autonomia eta ongizate integrala mantentzeko beharrezko laguntzak, bitartekoak eta akonpainamenduak izan ditzatela. Horrez gain, ardatz honek apustua egiten du gizarte-partaidetza, belaunaldien arteko harremanak, kohesioa eta ongizate emozionalari mesede egiten dioten inguruneak sortzearen alde, esangura duen bizitza baterako funtsezko

oinarri moduan. Eta aurrerapausoak ematen ditu aniztasuna eta sexualitatea bizitzeko modu desberdinak aitortzearen alde, ezagutza sortzea eta ezagutza hori testuinguru errespetuzko, segurua eta inklusiboak sustatzeko erabiltzea sustatzen du, adineko pertsona guztien eskubideak eta duintasuna bermatzeko.

Beraz, ardatz honen helburua da **trantsizio horiek guztiak errazteko baldintzak sortzea, komunitatean bizitza bete izatera daraman bizitza-proiektu bat garatzea xede izanda**. Helburu zehatz hauek ditu:


1. Bizitza-proiektu indibidual, bikoteko eta kolektiboak orientazioa eta aholkua oinarri izanda garatzea, bizitza bete garatzeko.

2. Proiektu komunitarioak sustatzea, adineko pertsonen haien gaitasunak eta talentuak garatu ahal izateko esangura duen bizitza izateko, ondasun erkideari ekarpena eginda.

3. Zaugarritasun-egoeran dauden pertsonen bizitza bete eta autonomia garatzeko beharrezko laguntzak eta bitartekoak izan ditzatela bermatzea.

4. Partaidetza, belaunaldien arteko harremanak, gizarte-kohesioa eta ongizate emozionala bizitza bete izateko oinarri moduan sustatzen dituzten inguruneak indartzea.

5. Sexu- eta genero-aniztasuna jorrazteko esparru-estrategia bat diseinatzea, adineko pertsonak barne hartuta.



1. ARDATZARI LOTUTAKO TRAKZIO-PROIEKTUAK

HELDUAK ZABALTZEN

AGENDA NAGUSIA

EUSKADI LAGUNKOIA BERRIA

COHOUSING PROGRAMA

TALENTO SENIOR SOLIDARIO

BETION

TRANSIS LAB 1

ZAINKETEN ZEHARKAKO PLANA

SOLELAB

LANDA-INGURUETAKO UDALERRI TXIKIETAN NAHI GABEKO BAKARDADEA PREBENITZEKO PROIEKTUA

TRANSIS LAB 2

SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIA



A2: ZAINKETEN KALITATEA ETA JASANGARRITASUNA.

Estrategiaren bigarren ardatza orientatuta dago zainketen **eredu komunitario kalitatezko, irisgarri eta jasangarria** eraikitzea. Eredu hori gai izango da modu egokian erantzuteko gero eta anizkunagoa eta adintsuagoa den gizartearen beharriaz. Zainketen kalitatea sustatzeak esan nahi du pertsonen duintasuna, autonomia eta eskubideak oinarri dituzten laguntzak bermatzea, baita zainketa-lanaren balioa aitortzea ere, profesionala, familiara zein komunitarioa izan. Jasangarritasunak eskatzen du aurrerapausoak ematea zerbitzu publikoen, familien eta komunitatearen arteko erantzukizuna orekatzen duten sistemen alde, gaitasuna sailkatuz eta mendekotasuna prebenitu, ohiko ingurunean irauteari mesede egin eta bizitza-ziklo osoan zainketen jarraipena bermatzen duten egiturak indartuz. Azken finean, ardatz honek bilatzen du hobeto lagundu, hobeto zaindu eta hobeto banatzen duen zainketen ekosistema bultzatzea, eta ongizate indibidual eta kolektiboa indartzea.

Xede horri begira, ardatzak berrikuntza-proiektuak bultzatzen ditu zainketen eredu berri baterako trantsizioa errazteko, pertsonarengan eta bere ohiko bizitza-ingurunean zentratuago dagoena. Era berean, lehenetsuta ematen zaio baliabide sozio-sanitarioen koordinazio efektiboari, eta arreta berezia jartzen zaie landa-inguruetan bizi diren pertsonen, leku horietan irisgarritasunak eta laguntzen jarraitutasunak estrategia zehatzak behar dituzte eta. Amaitzeko, ardatz honek akonpainamendu espezializatu eta pertsonalizatua indartzen ditu, bai zainketak behar dituzten adineko pertsonentzat, bai familiara zaintzaileentzat; zaintzaileen funtsezko eginkizuna aitortu eta haien ongizatea sustatzen da. Oro har, ikuspegi honek zainketa-ekosistema integratuagoa, ekitatiboagoa eta lurraldeko

askotariko errealitateen aurrean sentikorra goa sendotu nahi du.

Ardatz honen **helburu nagusia zainketen kalitatea eta jasangarritasuna sustatzea** da, eta **helburu espezifiko** hauek ditu:

- 1. Pertsona guztiek, eta bereziki egorarik zaurgarrienean daudenek, bizitza bete eta autonomia garatzeko beharrezko laguntzak izatea bermatzea, eta haien komunitatean denbora alaitu gehien irautea.**
- 2. Berrikuntza-proiektuak sustatzea, zainketen eredu berrirako trantsizioa errazteko.**
- 3. Zainketak behar dituzten pertsonentzat laguntza sozio-sanitarioko baliabideen koordinazioa erraztea, landa-inguruetan bizi direnengan foku berezia jarrita.**
- 4. Pertsona nagusiei eta familiara zaintzaileei babes eta laguntza espezializatua eta pertsonalizatua eskaintzea.**



2. ARDATZARI LOTUTAKO TRAKZIO-PROIEKTUAK

ZAINKETEN ZEHARKAKO PLANA

BETION

TRANSIS LAB 1

TRANSIS LAB 2

AGENDA NAGUSIA

LANDA-INGURUETAKO UDALERRI TXIKIETAN NAHI GABEKO BAKARDADEA PREBENITZEKO PROIEKTUA

ZAINDOO



A3: ONGIZATEA, BAKARDADEEI AURRE EGINDA.

Estrategiaren hirugarren ardatzak **ongizate integrala sustatzen jartzen du fokua, bizitzan zehar dauden bakardade-moduei helduta**, bai bakardade emozional eta esistentziala, bai isolatze soziala eta pertsonen bizitza komunitarioan lotura esanguratsuak edo parte hartzeko moduak ez dituzten egoerak, betiere genero-perspektiba kontuan hartuta. Bakardadea dimentsio asko dituen fenomeno moduan aitortzen da, osasun emozional, fisiko eta erlazionalari eragiten diola, eta, horren ondorioz, bultzatzen diren politiken bidez ez da isolatzea bakarrik murrizten, loturak izateko, elkarri laguntzeko eta kide izateko benetako aukerak sortzen dira, aurre egiteko moduen aniztasuna eta belaunaldien arteko ikuspegia kontuan hartuta.

Xede horretarantz aurrera egiteko, ardatzak programa zehatz bat garatzea planteatzen du, bakardadeari bizitza-ziklo osoan aurre egiteko. Erakundeei eta komunitateari detekzioarako, esku hartzeko eta ebaluatzeko erremintak eman nahi zaizkie, ulertu ahal izateko eta modu eraginkorren jarduteko. Era berean, belaunaldien arteko elkarbizitza eta elkartasuna sustatzen duten bizitegi-konponbideen aldeko apustua egiten du, loturak modu naturalean indartuko diren eguneroko inguruneei mesede eginda. Horrez gain, ardatzak bakardadeen prebentziora eta esku-hartzera bideratutako ekintzak, zerbitzuak eta baliabideak martxan jartzea bultzatzen du, landa-inguruneei arreta berezia eskainiz, leku horietan distantziak eta baliabideen eskaintza txikiagoak isolatze-arriskua handitu dezakete eta. Amaitzeko, ingurune sozial parte-hartzaile, inklusibo eta solidarioak sortzen dituzten proiektuei lehentasuna ematen zaie, bakardadeei komunitatetik prebenitzeko gai direnak, harreman esanguratsuak modu kolektiboan eraikita. Oro

har, ardatz honek ikuspegi eraldatzailea proposatzen du, prebentzioa, elkar babestea eta komunitate-ehun inklusiboa konbinatzen dituen, pertsona guztien ongizate integrala bermatzeko.

Ardatz honen **helburu nagusia da ongizatea indartzea bakardadeei aurre eginda. Helburu zehatz** hauek ditu:

1. Programa zehatz bat garatzea bakardadeari bizitzako etapa guztietan aurre egiteko, inpaktua detektatu, inplementatu eta ebaluatzeko.

2. Belaunaldien arteko elkarbizitza eta elkartasuna sustatzen dituzten bizitegi-konponbideak sustatzea.

3. Bakardadeak prebenitu eta horietan esku-hartzeko ekintzak, zerbitzuak eta baliabideak martxan jartzea sustatzea, batez ere landa-inguruetan.

4. Bakardadeen prebentziorako komunitate inklusiboak sortzen dituzten proiektuak bultzatzea, parte-hartzea eta belaunaldien arteko elkartasuna oinarri hartuta.



3. ARDATZARI LOTUTAKO TRAKZIO-PROIEKTUAK

SOLELAB

COHOUSING PROGRAMA

BIZIHABI

LANDA-INGURUETAKO UDALERRI TXIKIETAN NAHI GABEKO BAKARDADEA PREBENITZEKO PROIEKTUA

TRANSIS LAB 1

TRANSIS LAB 2

ZAINKETEN ZEHARKAKO PLANA

ZAINDOO

HELDUAK ZABALTZEN

AGENDA NAGUSIA

EUSKADI LAGUNKOIA BERRIA

BETION



A4: KOMUNITATEAREN ETA HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EKINTZA INDARTZEA.


Ardatz honek **ekosistema bat sendotu nahi du komunitatea eta hirugarren sektore soziala babesteko, sendoagoa, parte-hartzaileagoa eta kolaboratiboagoa izan dadin**. Ardatz honek aitortzen du ekimen komunitarioek eta hirugarren sektore sozialeko entitateek funtsezko eginkizuna dutela, hurbiltasuneko, berrikuntza sozialeko eta loturak eraikitzeke agente moduan, herritarren ongizatean eragiteko eta haien bizitza beteari mesede egiteko. Modu horretan, herritarren gaitasunak indartu, proiektuen eta eragileen artean sinergiak sustatu eta komunitateak parte-hartze aktiboa izatea nahi da beharrianak antzeman, konponbideak diseinatu eta ekimen eraldatzaileak abian jartzeko. Modu horretan, estrategiak eredu erantzukideago eta jasangarriagoa bultzatzen du, eta komunitatea eta hirugarren sektore soziala ezinbesteko motorrak dira lurraldean ongizate integrala hobetzeko eta lotura soziala indartzeko.

Ikuspegi horretatik, ardatzak hirugarren sektore soziala babestu nahi du proiektuak abian jarri ditzan eta horien bidez komunitate inklusiboak, eskubideen gauzatze efektiboa eta garapenerako lankidetzak bultzatu ditzaten, lurraldean duten inpaktu-gaitasuna hedatuz. Horrez gain, Euskadiren lagunkoitasuna sustatzen du lidergo komunitarioa, agenteen arteko lankidetzak eta belaunaldien arteko elkartasuna modu aktiboan sustatuta. Modu osagarrian, ardatz honen apustua da adineko pertsonen mugimendu asoziatibo eta komunitarioa indartzea, zentro sozialen eredu eraldatzea eta espazio irekiago, parte-hartzaileago eta konektatuagoak bihurtzea. Gainera, esperientzia kolaboratiboak bultzatzen ditu herritarrek inplikazio handiagoa izan dezaten erabaki publikoak hartzerakoan eta belaunaldien artean ezagutzak eta esperientziak trukatzeko. Amaitzeko, agente publiko,

sozial eta komunitarioak konektatzen dituzten proiektuak eta zerbitzuak garatzeari lehentasuna ematen zaio babesa behar duten pertsonen prebentziorako eta zainketarako, bereziki zaurgarritasun egoeran daudenei begira. Oro har, ardatz honek proposatzen du ekintza-eredu komunitario artikulatuagoa, parte-hartzaileagoa eta solidarioagoa, ongizatea sortzeko eta gizarte-loturak indartzeko gai dena.

Ardatz honen **helburu nagusia komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea da. Helburu espezifiko** hauek ditu:

- 1. Hirugarren sektore soziala babestea gizarte-inklusioa, garapenerako lankidetzak, herritar guztien eskubideak aitortzea eta horiek modu eraginkorrean gauzatzea sustatzen duten proiektuak abian jartzeko.**
- 2. Euskal lurraldearen lagunkoitasuna bultzatzea komunitatearen lidergoa, agenteen arteko lankidetzak eta belaunaldien arteko elkartasunaren sustapena oinarri hartuta.**
- 3. Adineko pertsonen mugimendu asoziatibo egituratu, ordezkatzaila eta komunitarioa indartzea, zentro sozialen ereduaren eraldaketa azpimarratuz.**
- 4. Erabaki publikoetan pertsonen eta agenteen inplikazioa indartzen duten esperientziak kolaboratiboak sustatzea.**
- 5. Belaunaldien artean ezagutzak eta esperientziak trukatzeko sustatzen duten jarduerak erraztea.**
- 6. Laguntza behar duten pertsonen eta zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen prebentziorako eta zainketarako agente publiko, sozial eta komunitarioak konektatzen dituzten proiektuak eta zerbitzuak sustatzea.**



4. ARDATZARI LOTUTAKO TRAKZIO-PROIEKTUAK

HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

EUSKADI LAGUNKOIA BERRIA

HELDUAK ZABALTZEN

AGENDA NAGUSIA

TALENTO SENIOR SOLIDARIO

TRANSIS LAB 1

TRANSIS LAB 2

ZAINKETA ZEHARKAKO PLANA

SOLELAB

LANDA-INGURUETAKO UDALERRI TXIKIETAN NAHI GABEKO BAKARDADEA PREBENITZEKO PROIEKTUA

BIZIHABI



A5: IKERKETATIK ETA BERRIKUNTZATIK EZAGUTZA SORTZEA


Estrategiaren bosgarren ardatza **ikerketaren eta berrikuntzaren bidez ezagutza sortzea bultzatzera** orientatuta dago. Ulertzen da analisi zorrotza eta konponbide berrien etengabeko bilaketa oinarri hartuta soilik dela posible erronkei aurrea hartzea, esku-hartze publikoak hobetzea eta politika eraginkor eta eraldatzailagoak diseinatzea. Ardatz honen apustua da ikerketa-gaitasuna indartzea, esperientazioa eta etengabeko ikaskuntza sustatzea, eta ezagutza zientifikoaren, ezagutza profesionalaren eta jakintza komunitarioaren artean zubiak eraikitzea. Modu horretan, estrategiak bilatzen du ebidentzien oinarri sendoa sendotzea erabakiak hartzea orientatzeko, gizarte-berrikuntza bultzatzeko eta eredu egokituago, jasangarriago eta orainaldiko eta etorkizuneko beharrezanezi erantzuteko gaitasun handiagoa duten eredu-tara aurrera egiteko. Horrez gain, kontuan izan behar da Euskadiko **berrikuntza-itsasargietako** batek fokua jartzen duela demografian eta erronka soziosanitarioan.

Horretarako, Euskadiko 70 urtetik gorako biztanleriaren luzetarako azterketa egitea planteatzen da, zahartze onari lotutako faktoreak eta denboran zehar zainketen ibilbideak modu jarraituan aztertu ahal izateko. Horrez gain, ardatzak esperientazio- eta berrikuntza-proiektuak bultzatzen ditu etorkizuneko zainketa ereduak buruz ezagutza berriak sortzeko, eta erraztu egiten du ikuspegi integratuago, prebentiboago eta pertsonarengan zentratuago daudenetara trantsizioa egitea. Modu osagarrian, bakardadei buruzko ebidentziak, antzemate-erremintak eta inpaktu-neurketak sortzera bideratutako ekimenak garatuko dira, bizitzako etapa guztietan zeharkako izaera dutela onartuta. Amaitzeko, ardatz honek gizarte-berrikuntzako proiektuak sustatzen ditu, belaunaldien arteko elkartasuna, gizarte-kohesioa eta herritarren parte-hartzea

indartzeko, eta ulertzen du ezagutzarik eraldatzaileena sortzen dela zientziak, komunitateak eta eguneroko esperientziak bat egiten dutenean konponbide partekatuak eraikitzeko.

Beraz, ardatz honen helburu nagusia da **ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea. Helburu espezifiko** hauek ditu:

- 1. Euskadiko 70 urtetik gorako biztanleen luzetarako azterketa egitea, zahartze ona ekartzen dute prozesuak eta zainketa-ibilbideak ikertzeko.**
- 2. Esperientazio- eta berrikuntza-proiektuak sustatzea, zainketa-eredu berriei buruzko ezagutza sortzeko.**
- 3. Teknologia prediktiboan aurrera egitea, etxean mantentzea sustatzen duten zerbitzuekin lotzeko.**
- 4. Bizitzako etapa guztietan bakardadearen gaineko eragina antzeman eta neurtzeko ebidentzia eta erremintak sortzeko proiektuak garatzea.**
- 5. Belaunaldien arteko elkartasuna, gizarte-kohesioa eta herritarren parte-hartzea sustatzen duten berrikuntza sozialeko proiektuak sustatzea.**



5. ARDATZARI LOTUTAKO TRAKZIO-PROIEKTUAK

BIZIARIA

TRANSIS LAB 1

ZAINKETEN ZEHARKAKO PLANA

BETION

SOLELAB

LANDA-INGURUETAKO UDALERRI TXIKIETAN NAHI GABEKO BAKARDADEA PREBENITZEKO PROIEKTUA

TRANSIS LAB 2

HELDUAK ZABALTZEN

AGENDA NAGUSIA

EUSKADI LAGUNKOIA BERRIA

HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

BETION





5

TRAKZIO-
PROIEKTUAK



Trakzio-proiektuak Estrategiaren helburuei ekintzatik erantzuna emateko abian jarritako ekimenak dira, eta aldaketa zehatzak eta epe labur/ertainean ebaluatzeko modukoak direnak sortu nahi dituzte.

Gaur egun, Estrategiak **16 trakzio-proiektu** bil-tzen ditu, eta proiektu horiek strategiaren aurrerapen-ildo nagusiak bultzatzen dituzte. Hala ere, **estrategia ireki eta dinamiko** da, gauza-tze-aldian proiektu berriak gehitzeko pentsatua. Malgutasun horri esker, ezarritako helburuei modu esanguratsuan ekarpenak egiten dizkio-ten ekimenak gehitu daitezke, eta horrela indartu egiten da sortzen diren erronketara egokitze, eguneratzeko eta erantzuna emateko gaitasuna.

Hasieran jasotako 16 proiektuetatik 8 berriak dira eta 8 jarraipenekoak. **Trakzio-proiektu berriek berrikuntzak bultzatu eta aukera eraldatzaileak irekitzen dituzte, eta jarraipen-proiektuek aurrerapenak sendotu eta denboran egonkortasuna eta koherentzia bermatzen dituzte. Bien konbinazioak estrategia indartzen du, berrikuntza eta sendotasuna integratzen baitira ekintza-esparru berean.** Horrez gain, oso esanguratsua da trakzio-proiektuetatik 12 beste agente batzuekin lankidetzan garatzea, horrela, baterako ekintza eta inpaktu kolektiboa indartzen baitira. 6 trakzio-proiektutan modu koordinatuan lan egiten da beste trakzio-proiektu batzuekin, eta horrela erronka partekatuetan modu sinergikoan aurrera egiten da eta strategiaren emaitzak anplifikatzen dira.

Adinekoekiko Euskal Estrategian adineko pertsonen partaidetza benetako eta esanguratsuari funtsezko zeregina ematen zaio, eta hori parte-hartze mailan zehazten da. Proiektuen % 31n adinekoen eginkizuna zerbitzu edo baliabideen onuradun izatera mugatzen den arren, estrategiak eredu erantzukideagoetarantz

aurrera egiten du: 2 proiektutan (% 12,5), adineko pertsonen erabaki-hartzaile moduan parte hartzen dute, eta modu zuzenean eragiten dute ekimenak diseinatu, garatu edo abian jartzean. Baina are garrantzitsuagoa da **16 proiektutatik 9tan (% 56) adinekoek bi rolak —onuradunak eta erabaki hartzaileak—** konbinatzen dituzte-l. Datu horrek strategiaren izaera kolaborati-boa indartu eta helburua argi adierazten du: **ez egitea pertsona nagusientzat, ezpada pertsona nagusiekin.** Pertsona nagusien ahotsa, esperientzia eta intzidentzia-gaitasuna aitortzen dira beharrianetara egokituago dauden erantzun eraldatzaileak eraikitze.

Ondoren, trakzio-proiektu bakoitza aurkeztuko dugu ordena alfabetikoan, eta labur azalduko ditugu helburuak, deskripzioa, esku-hartzeko zein ardatzekin lotuta dagoen eta bizitza beterako oinarrizko beharrianetan dituen inpaktuak:

IZENA	AGENDA NAGUSIA
Helburua	Gizarte-partaidetzaren kultura eta gobernantza ona sustatzea, esperientzia praktikoko kolaboratibo bidez, esparru publikoan erabaki hobeak hartzen laguntzeko. Modu horretan, hurbiltasun handiagoa eta konfiantza lortu nahi dira erakunde publikoekiko eta horiek erabakitze-prozesuak garatzeko dituzten moduekiko.
Deskripzio laburra	Eskaintzen duen lan-metodologiari esker, pertsonen, aniztasun guztiak kontuan hartuta, gogoetak egin, eztabaidatu, ikasi eta baliozko ekarpenak egin ditzakete Agenda Politikoan proposatutako gai guztiei buruz.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Zainketen kalitatea eta jasangarritasuna. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Segurtasuna eta babesa Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak.

IZENA	BETION
Helburua	betiONen helburu nagusia da pertsona erabiltzaileari aukera ematea alait denbora gehien bere etxean bizitzen jarraitzeko modu seguru, autonomo eta duinean.
Deskripzio laburra	Etengabeko arreta-zerbitzua da, 24x7, pertsona erabiltzaileak artatzeko etxeetan instalatzen den teknologiaren bidez.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Zainketen kalitatea eta jasangarritasuna. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera.





IZENA	BIZIARIA
Helburua	Azterketa honen helburu nagusia da Euskadiko 70 urtetik gorako biztanleen behatokia ezartzea zahartze ona eragiten duten prozesuak eta zainketa-ibilbideak aztertze.
Deskripzio laburra	Biziarria proiektuan, 70 urteko eta hortik gorako pertsonen azterketa egiten zaie haien egunerokoa zein den ikusteko eta modu horretan zahartze-prozesua hobetu ahal izateko.
Lotutako ardatza	Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.

IZENA	BIZIHABI. BELAUNALDIEN ARTEKO BIZIKIDETZA-PROGRAMA
Helburua	EAEko erronka sozial eta demografikoei aurre egitea, hala nola 65 urtetik gorako pertsona nagusien nahi gabeko bakardadea eta gazteek aldi baterako, arrazoizko prezioko eta kalitatezko etxe baterako sarbidea izatea belaunaldien arteko bizikidetzaren eta ostatu partekatuen programa baten bidez.
Deskripzio laburra	Bizihabi programak konektatu nahi ditu aldi baterako etxea bilatzen duten gazteak eta etxea daukaten eta norbaitekin bizitzeko prest dauden pertsona nagusiak. Kuvuren bidez, bi alderdi interesdunekin harremanetan jartzen da gelaren bilaketa- edo eskaintza-prozesua hasteko. Ezarritako pauso batzuen ostean, bi pertsonekin harremanetan jartzen da eta akonpainamendu bat egiten da elkarrekin bizi diren artean, arazoren bat sortuz gero.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.

IZENA	SEXU ETA GENERO ANIZTASUNAREN EUSKAL ESTRATEGIA
Helburua	Sexu- eta genero-aniztasunari aurre egiteko esparru ulerkor eta estrategikoa ezartzea.
Deskripzio laburra	Sexu- eta genero-aniztasuna jorratuko dituen esparru-estrategia, LGTBQ+ kolektiboari arreta berezia eskainiz eta biztanle guztiei eskaintako begiradarekin, aldi berean beste errealitate batzuei helduta, hala nola sexualitatea pertsona nagusien kolektiboan.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Bizitzaren zentzua.

IZENA	EUSKADI LAGUNKOIA BERRIA
Helburua	Pertsona nagusien eta herritar guztien partaidetza bultzatzea Euskadiko udalerrietan auzoak eta inguruneak hobetzeko.
Deskripzio laburra	Inguruneen (fisikoak eta sozialak) lagunkotasuna hobetzeko konpromisoa duten euskal udalerrien sarea, pertsona nagusien eta oro har herritarren partaidetza aktibotik abiatuta. Gaur egun, 88 udalerrri daude atxikita. Proiektuak erraztu nahi du pertsona nagusien lidergo aktiboa herri eta hirietan ongizatea sortzeko, erabakiak hartzean herritarren inplikazioa izateko partaidetza-prozesuak sortu eta sustatu nahi dira, Euskadin lagunkotasuna hobetzeko ekimen berritzaileen sarea sortu nahi da eta ingurune lagunkoia eraikitzeke pertsona nagusiekin, udalekin, dendekin, farmaziekin eta gizarte-eragileekin lankidetzan aritu nahi da.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.



IZENA	HELDUAK ZABALTZEN
Helburua	Euskadiko zentro sozialen eraldaketa erraztea eta gaur egungo eta etorkizuneko biztanle nagusien beharrianetara egokitzea.
Deskripzio laburra	Proiektuaren helburua da Euskadiko pertsona nagusien zentro sozialak eguneratu eta indartzea, orainaldiko eta etorkizuneko adineko pertsonen beharrianak eta espektatibak kontuan hartuta. Ekimenak ekipamendu horiek hobetzea bultzatzen du, komunitate-erreferentziako espazio moduan, partaidetza aktiboari, gizarte-kohesioari eta zahartze osasuntsuari mesede eginda.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.

IZENA	ZAINKETEN ZEHARKAKO PLANA
Helburua	Pertsona guztiek, eta bereziki egoerarik zaugarrienean daudenek, bizitza bete eta autonomia garatzeko beharrezko laguntzak izatea bermatzea, eta haien komunitatean denbora albat gehien irautea.
Deskripzio laburra	Zainketen/Laguntzen Zeharkako Plana esparru estrategikoa da, zainketa integralak, jarraituak eta pertsonarengan eta bere harremanetan zentratuak bermatzera bideratua, bizitza-ziklo osoan zehar. Zainketak gizarte-ondasun eta erantzukizun partekatutako moduan ikusten dira, jardun sozial, komunitario eta prebentiboak integratuz.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Zainketen kalitatea eta jasangarritasuna. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.

IZENA	COHOUSING PROGRAMA: ALOKAIRUA SUSTATZEA. BABES PUBLIKOKO NAHIZ ETXEBIZITZA LIBREETAKO ETXEBIZITZA KOLABORATIBOAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK
Helburua	Pertsonen eta kolektiboen arteko lankidetzak, merkatu librean etxebizitza eskuragarri ez egoteari lotutako oztopoak gainditzeko, etxebizitzaren ezaugarriak gizarte-ondasun gisa sustatzeko, inbertsio-ondasun moduan sustatu beharrean, eta komunitate-proiektuen inpaktu positiboa eragiteko, banakako isolamenduaren eta babes-sareen galeraren arazo gero eta handiagoaren aurrean, bereziki adinekoen kasuan.
Deskripzio laburra	Babes publikoko nahiz etxebizitza libreetako etxebizitza kolaboratiboak sustatzeko laguntzak. Etxebizitza kolaboratiboak Etxebizitza Sailak sartutako etxebizitza tipologia berria dira. Familia-nukleoa osatu gabe, zerbitzuak partekatzen dituen eta erregimen komun baten mende dagoen pertsona talde batek okupatzen edo bizitzera bideratuta dagoen eraikin batean txertatutako etxebizitzak dira. Etxebizitza kolaboratiboak "cohousing" izeneko bizitza-eredu komunaren barruan kokatzen dira. Mota horretako etxebizitzak garatzean lortu nahi diren helburu komunitarioak lotuta egon ohi dira pertsona gazteen emantzipazioarekin, zahartze aktiboarekin edo landa-inguruen biziberritzearekin.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Segurtasuna eta babesa. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak.






IZENA	LANDA-INGURUETAKO UDALERRI TXIKIETAN NAHI GABEKO BAKARDADEA PREBENITZEKO PROIEKTUA
Helburua	Amurrioko Administrazio Batzarretan nahi gabeko bakardadea prebenitu, murriztu eta jorratzea, gizarte-inklusiua, ongizate emozionala eta kohesio komunitarioa sustatzen dituzten politika publiko integralen bidez, landa-inguruko pertsona nagusiei arreta berezia eskainita.
Deskripzio laburra	Proposamena batzarretako zentro sozialak berreskuratzearen inguruan artikulatzen da, komunitatearen erreferentzia-leku moduan ulertuta, eta kultura-jarduerak, aisia-jarduerak eta gizarte-partaidetzako jarduerak xede-biztanleriari zuzendutako preskripzio sozial aktiboko estrategia batekin konbinatzea proposatzen da. Programa modu ibiltarian garatuko da, eta lurralde-oreka eta kultura- eta gizarte-eskaintza administrazio-batzar guztietara iristea bermatuko da. Proiektuak landa-leihatila bakarraren zerbitzu pilotua baloratzea eta modu progresiboan ezartzea jasotzen du, elkargune komunitarioei lotuta, administrazioa hurbiltzeko eta nahi gabeko bakardadea prebenitzeko erreminta moduan.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Zainketen kalitatea eta jasangarritasuna. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.

IZENA	SOLELAB: BAKARDADEARI ETAPA GUZTIETAN AURRE EGITEKO PROGRAMA ESPEZIFIKO BAT GARATZEKO PROPOSAMENA
Helburua	Proiektuaren helburua da Euskadiko adinekoen bakardadeari aurre egitea, elkarrekin sortutakoak eta parte-hartzaileak diren detekzio- eta esku-hartze erreminten eta metodologiaren bidez.
Deskripzio laburra	Aurkeztutako proiektuak ikerketa aplikatuari lagundu nahi dio, helburuak lortzerakoan adin desberdinetako pertsonak inplikatu dituzten metodologia parte-hartzaileen bidez. Zehatz esanda, 'living lab'aren hurbilketaren barruan kokatuko da. Pertsona erdigunean jartzen duen ikerketako eta berrikuntzako hurbilketa gisa ulertzen da, komunitateetan eta benetako inguruneetan ikerketa- eta berrikuntza-prozesuak biltzen dituen baterako sorkuntzako hurbilketa batean oinarrituta.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Bizitzaren zentzua.


IZENA	DIRULAGUNTZAK HIRUGARREN SEKTORE SOZIALARI
Helburua	Hirugarren sektorearen jarduerak sustatzea esku-hartze sozialaren esparruan gizarte-ekimeneko entitateen bidez. Entitate horiek, esku-hartze sozialeko jardueren bidez, sustatuko dituzte gizarte-inklusiua, garapenerako lankidetzak eta zaugarritasun edo bazterketa, desberdintasun, babesgabezia, desgaitasun edo mendekotasun egoerei aurre egiten dieten pertsonen, familien, taldeen, kolektiboen edo komunitateen eskubideak modu eraginkorrean gauzatzea.
Deskripzio laburra	Dirulaguntza hauek hiru lerro izango dituzte: 1. Esku-hartze soziala pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin. 2. Esku-hartze sozialaren esparruan, ekintza boluntarioa eta parte-hartze asoziatiboa indartzea. 3. Esku-hartze sozialerako ezagutza kudeatzea.
Lotutako ardatza	Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrianetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.





IZENA	TALENTO SENIOR SOLIDARIO
Helburua	Adinekoen (seniorrak) ezagutzak eta esperientzia mobilizatu eta beste kolektibo eta belaunaldi batzuekin partekatzea elkarri eta gizarteari mesede egiteko, eta seniorrengan onurak eragitea, aktibo mantentzen baitira eta haien ondarea materializatzen baitute; eta hartzaileek ikasi eta aurrera egiten dute truke horri esker. Esparru horretan, gizartea solidarioagoa eta adituagoa da.
Deskripzio laburra	Proiektuak sustatzen du adinekoek askotariko belaunaldiekin ezagutzak eta esperientziak trukatzeko, gazteekin eta/edo ikasleekin arlo askotako ezagutzak trukatzeko (finantzak, ekonomia, enplegarritasuna, ekintzaitza, kultura- eta lan-integrazioa immigranteekin, besteak beste), erretirorako igarobidea, erretiroak planteatzen dituen erronkak eta bizitzako etapa horretan bizitza-asmoari buruz erabakitzeko egokitasuna, historiari, ekonomiari, arlo juridikoari, pentsioei eta horien etorkizunari, eta abarri buruzko ezagutzak partekatzea adinekoekin, adinekoen zentroetan, esperientzia-geletan, etab., mugikorra erabiltzen eta mugikorrak dituen aukerak irakastea arrakala digitala izenekoa dutenei, mundu digital honetan hobeto integratuta egon daitezen, adinekoen bizitzari, gizartean duten eginkizunari buruzko esperientziak trukatzeko, adinekoen parte-hartzea sustatzea eta horrela bizitza beteagoa lortzea.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrezanetan	Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Ludikoak, estetikoak eta aisia. Bizitzaren zentzua.

IZENA	LANDA-EREMUETAKO BIZITZA-LUZERAN GIZARTE-BERRIKUNTZAKO MUGAZ GAINDIKO LIVING LAB (TRANSISLAB I)
Helburua	TRANSIS LABen helburua da mugaz gaindiko Living Lab bat sortzea, hauskortasunaren esperientziazio-laborategi moduan, 6 esperientzia pilotu bultzatzeko. Esperientzia horien helburua da laguntza sozio-sanitarioko hainbat baliabide konektatzea Euskadi, Nafarroa, Akitania Berria eta Okzitania eskualdeetako landa-inguruetan 400 adineko zaugarriren bizitza-kalitatea hobetzeko.
Deskripzio laburra	Esperientzia pilotuak ikuspegi esperimental batekin egiten dira, hauskortasunaren ebaluzioan (ex - ante ebaluzioa), POCTEFA eskualde bakoitzeko esku-hartze sozialetan eta inpaktuaren ebaluzioan (ex - post ebaluzioa) oinarrituta. Proiektuak 5 produktu nagusi sortzen ditu: 1) Hauskotasunaren Balorazio gida eta horren erreminta digitala, 2) Laguntza sozio-sanitarioko planak diseinatzeko gida eta horien erreminta digitala, 3) Esku-hartze sozio-sanitarioaren gida (laguntza-jarduerak), 4) Inpaktua ebaluatzeko gida eta horren erreminta digitala, 5) Kapitalizazio gida. Gida horiek guztiak TRANSIS LAB plataforma digitalean integratuta daude, eta horri esker datuak ustiatu daitezke esperientzia pilotuen jarraipena eta horien inpaktuaren ebaluzioa egiteko. Proiektuaren mugaz gaindiko balioa TRANSIS LAB SAREAREN bidez kapitalizatzen da. Mugaz gaindiko komunitate hori INTERREG POCTEFA eskualdeko landa- eta hiri-inguruetan adinekoen ongizatearen alde lan egiten duten erakunde, instituzio eta profesionalek osatzen dute. Landa-inguruetako esparru mediko-sozialeko 90 profesionali gidak eta erreminta digitalak transferitzeko ikaskuntza-moduluak ezartzen ditu, esperientzia pilotuak 65 erakunde sozio-sanitariori transferitzeko moduluak ezartzen ditu eta landa-eremuetarako bizi-luzetasunari buruzko gizarte-berrikuntzako mugaz gaindiko agenda bat diseinatu eta zabaltzen du (politika publikoak).
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Zainketen kalitatea eta jasagarritasuna. Ongizatea, bakardadeei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrezanetan	Afektiboak, sozialak eta komunitarioak






IZENA	TRANSIS LAB 2: BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARTASUNA
Helburua	Transis Lab. Belaunaldien arteko Elkartasunaren arloko Mugaz gaingidiko Lankidetzak sortu zen belaunaldien arteko zubiak eraikitze eta distantzia hori lankidetzak, elkarrekiko ikaskuntza, aukera berriak eta bizitza komunitarioa bihurtzeko asmoz.
Deskripzio laburra	Proiektuak 14 entitateko partzuergo bat biltzen du, besteak beste, administrazio publikoak, unibertsitateak, gizarte-entitateak. Guztiek modu bateratuan lan egingo dute belaunaldien arteko elkartasunaren erronketarako konponbide berritzaileak diseinatu, esperimendu eta sendotzeko. 2026ko urtarriletik aurrera eta hiru urtez (2026-2028), mugaz gaingidiko tresna horrek lankidetzak-modu berriak bultzatuko ditu Euskadin, Nafarroan, Pirinio Atlantikoetan eta Pirinio Garaietan. Transis Lab. Belaunaldien arteko Elkartasunaren arloko Mugaz gaingidiko Lankidetzak belaunaldien arteko elkartasunaren 11 esperientzia pilotu jarriko ditu abian hainbat lurraldetan, eta 200 gazte eta 200 adineko zuzenean parte hartuko dute. Esperientzia horiek landa-inguruetan zein hiri-inguruetan garatuko dira, eta hainbat alderdi landuko dituzte, besteak beste elkarri laguntzea, zainketa partekatua, ezagutzen transmisioa, gizarte-partaidetza, elkarbizitza eta aukerak sortzea.
Lotutako ardatza	Trantsizioak eta bizitza-proiektua bizitza bete baterako. Zainketa kalitatea eta jasagarritasuna. Ongizatea, bakardadei aurre eginda. Komunitatearen eta hirugarren sektore sozialaren ekintza indartzea. Ikerketatik eta berrikuntzatik ezagutza sortzea.
Inpaktua bizitza beterako beharrezanetan	Afektiboak, sozialak eta komunitarioak.

IZENA	ZAINDOO
Helburua	Mendekotasun-egoeran dauden 60 urtetik gorako adinekoen familiako zaintzaileei (ez-profesionalak) laguntza eta akonpainamendu espezializatu eta pertsonalizatua eskaintzea, zainketa-eginkizun konplexua egin dezaten haien ongizatea eta zaintzen duten pertsonaren ongizatea bermatuz. Estrategia honek irauten duen bitartean, proiektu hau BetiOn proiektuan sartuko da.
Deskripzio laburra	Zaindoo laguntza psiko-hezkuntzako eta psikosoziala ematen duen zerbitzua da, eta mugikorrerako/tableterako app baten bidez ematen da. Pertsona eta/edo familiako zaintzaileei zuzenduta dago eta zientifikoki baliozkotuta dagoen esku-hartzeko metodologian oinarrituta dago. Metodologia horretan, pertsona zaintzaile bakoitzaren egoera ebaluatu, pertsona horren egoera biopsikosoziala zein den jakin eta pertsona horri akonpainamendu-plan pertsonalizatua eskaintzen zaio, gainkarga murriztera eta ongizatea hobetzera bideratua.
Lotutako ardatza	Zainketa kalitatea eta jasagarritasuna. Ongizatea, bakardadei aurre eginda.
Inpaktua bizitza beterako beharrezanetan	Fisiologikoa, motorrak eta osasun arlokoak. Segurtasuna eta babesa. Ezagutza eta teknologiaren erabilera. Afektiboak, sozialak eta komunitarioak. Bizitzaren zentzua.





EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA

Estrategiaren aldizkako ebaluazioa eta etengabeko jarraipena funtsezkoak dira strategiaren eraginkortasuna eta gardentasuna bermatzeko eta inpaktu al bait handiena lortzeko. Prozesu horiei esker, **aurrerapenak identifikatu, desbideratzeak antzeman, akatsak garaiz zuzendu eta ekintzak ikuspegiarekin, printzipioekin eta ezarritako helburuekin lerrokatuta mantentzea bermatzen da.** Horrez gain, kontuak ematea errazten dute, erabakiak modu informatuan hartzea errazten dute eta politika publikoak etengabe hobetzen laguntzen dute, baliabideak modu eraginkorrean erabiltzen direla eta strategiak biztanleengan inpaktu benetako eta jasagarria sortzen duela bermatzen dute.

Estrategiaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko, **urteko txostenak** egingo dira, eta horiek lagunduko dute gertatzen diren balizko aldaketak identifikatzen edo estrategia ezartzea zaintzen duten oztopoak antzematen. Txosten horietan, trakzio-proiektuekin batera ezarritako **jarraipen-adierazleak** aztertuko dira, txostenak osatzeko kontuan har daitezkeenak eta prozesu honetarako interesgarriak direnak baztertu gabe.

Horretarako, trakzio-proiektuek jaso beharko dituzte **estrategian planteatutako helburuei eta bizitza beterako oinarrizko beharrianei** dagokienez betetze-maila eta lorpena erakusten duten adierazleak, baita beste eragile batzuen parte-hartzearekin edo lankidetzarekin lotutako adierazleak ere. Trakzio-proiektu bakoitzak bere helburuak eta xedeak erabakiko ditu, baita adierazleak jasotzeko modua ere.

Adierazle horien jarraipena urtero aurkeztuko zaio **EABk eta Bizitza Beterako Laguntza Zuzendaritzak** ordezkaturako **Jarraipen Batzordeari**.

